cederna garalur

Cederna Garalur Elkartea

Lan Memoria

2014. urtea

AURKIBIDEA

SARRERA 3
SARRERA 4
Gobernu-organoak. 5
LAN ESTRATEGIA 8
Ikuspegia eta lan-printzipioak 8
Helburuak 9
Lan-esparruak 10
Elkartearen giza baliabideak 11
Enpleguko eta landa-garapeneko agentziak 13
CEDERNA GARALUR ELKARTEA 2014-2020 ALDIKO ERRONKA BERRIEN AITZINEAN 15
SARRERA 16
LANTALDE BERRIAK 17
ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA 18
ELKARTEAREN KUOTA SISTEMA 19
BERDINTASUN POLITIKAK TXERTATZEA 20
PROIEKTUAK 22
SARRERA 23
BASOLAN 25
Eskaintzak eta eskaerak duten aukeraren diagnostikoa 26
“ARITZ”: "harizti atlantikoei balioa ematea" 28
ITERA-AA: berrikuntza landa-eremuetako nekazaritzako elikagaien sektorean 32
GURE BIDEETATIK 37
HURBILEKO LANDA-MERKATARITZA 43
MERKAT-ARI 47
TURISMOA 52
"Nafarroako Mendialdea" turismo-xedearen kalitate-plana eta kalitate-sistemak 53
Espainiako turismo kalitaterako sistema, Q ziurtagiria, zabaltzeko laguntza teknikoa 55
"Nafarroako Mendialdea" kalitate-mahaia 56
Aholkularitza orokorra turismo-establezimenduei 58
CYBERSUDOE’INNOV 59

LANIN-G: TOKIKO GOBERNANTZARAKO EREDU BERRIAK, HERRITARREN PARTE-HARTZEA OINARRI DUTENAK 62

EUROPARI BURUZKO INFORMAZIO ZERBITZUA, 'EUROPE DIRECT' GUNEA 69

ENPRESEI ARRETA EGITEKO, EKINTZAILETZARAKO ETA PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZUA 74

SARRERA 75

ERNE PROIEKTUA: “IDEIATIK MERKATURA” 77

NAFARROAKO MENDIALDEAN EKINTZAILETZA BABESTEKO ZERBITZUA. "NAVARRA EMPRENDE" SAREA 82

Sarrera. "Navarra Emprende" sarea. 82

"Navarra Emprende" sarea Nafarroako Mendialdean. Cederna Garalur Elkartearen baliabideak 83

Ekintzailetzari laguntzeko Cederna Garalur Elkartearen zerbitzua "Navarra Emprende" sarearen barnean. Ekintzak eta emaitzak 2014an..... 85

ENPRESA-EKIMENERAKO PRESTATZEN. PRESTAKUNTZA-PROGRAMA ENPRESA TXIKIENTZAT 90

NAFARROAKO MENDIALDEA - LGP LANDA GARAPENERAKO PROGRAMAREN (LEADER-en 4. ARDATZA, 2007-2013) JARRAIPENA ... 94

EMAITZA EKONOMIKOAK..... 98

SARRERA

SARRERA



Cederna Garalur Elkartea irabazi asmorik gabeko entitatea da. 1991n sortu zen, xedea izanik Nafarroako Mendialdeko interes ekonomikoak eta sozialak biltzea eta lurraldeko eragileen premiei erantzutea, Nafarroako Mendialdeko baliabide endogenoen erabilera jasangarria aintzat hartzen duten proposamen berritzaileen bitartez, eragile ekonomiko eta sozial publiko eta pribatuen artean lankidetza sustatuz.

2014ko abenduaren 31n, elkarteak elkartutako 104 erakunde zituen, eta horietatik gehienak tokiko erakunde publikoak eta zuzendaritza-batzordeak ziren; horiez gain, zerbitzu-mankomunitateak, enpresa- eta sektore-elkarteak, merkataritza-ganbarak eta herritarren elkarteak zeuden.

Cederna Garalur Elkartea, berriz, "Espainiako Landa Garapenerako Sareko" (REDR) kidea da, baita Nafarroako Marketin Klubekoa eta ANELekoa ere (Nafarroako Lan Enpresen Elkartea). Halaber, Nafarroako Turismo Kontseiluan parte hartzen du, baita Nafarroako Lurralde Estrategiaren Gizarte Kontseiluan ere.

Bestalde, SICTEDek ("xedeko turismo-kalitaterako sistema integrala") kudeatu eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen duen Nafarroako Mendialdeko Turismo Kalitaterako Lantaldeko kidea eta koordinatzailea da. Halaber, Cederna Garalur Elkartea turismo-kalitatearen *Q* zigilua kudeatzen duen Espainiako turismo-kalitaterako institutuaren (ICTE) Nafarroako ordezkaritza da.

Cederna Garalur Elkarteak bere baitan du Europari buruzko "Europe Direct" informazio-gunea, Europako Batzordeak finantzaturik. Zerbitzu horren bitartez (Nafarroan bakarra), elkartea UrdimbREDeko kidea da ("Europako landa-eremuetako informazio-guneen elkartea"), eta hori, aldi berean, Estatuko Landa-eremuen Sarearen jarraipenerako Lantaldeko kidea da.

Gobernu-organoak.

Elkartearen estatutuen arabera, batzar nagusia, zuzendaritza-batzordea, batzorde betearazlea eta lehendakaritza dira elkartearen gobernu-organoak.

BATZAR NAGUSIA	• Elkartearen kide anitzeko organo subirano eta gorena. • Eginkizunak: elkartearen garrantzizko agiri organikoak onartzea, eta garrantzi handieneko aferak lantzea. • Osaera: elkartutako erakunde guztiak
ZUZENDARITZA BATZORDEA	• Elkartearen gobernu, kudeaketa, administrazio eta ordezkapenerako kide anitzeko organoa. • Osaera: 23 kidek osatzen dute: eskualde eta toki-erakundeen 14 ordezkarik, eta toki-erakunde esanguratsuenen 9 ordezkari. Garrantzi handieneko aferak lantzen ditu.
BATZORDE BETEARAZLEA	• Kide anitzeko organoa: bere lurralde-eremuan elkartera aurkeztutako proiektuak bultzatzen, aztertzen, irizpena ematen, erabakitzen eta bideratzen ditu. • Osaera: 14 kidek osatzen dute: toki-erakundeen 6 ordezkarik eta sektore-erakundeen 7 ordezkarik, eta lehendakaritzak.
LEHENDAKARITZA	• Elkartearen organo betearazlea. • Eginkizunak: legezko ordezkapena egin, kide anitzeko gobernu-organoak deitu eta buru izan, administrazioa eta kudeaketa, eta betearaztea.

1. irudia. La Coronako pagadia (Orotz-Betelu)

1. taula. Elkartekideen koadroa

TOKI ERAKUNDEAK (UDALERRIAK)		
Abaurregaineko Udala	Etxarri Aranazko Udala	Petilla de Aragoneko Udala
Abaurrepeko Udala	Ezkurrako Udala	Erromantzatuko Udala
Oibarko Udala	Ezprogiko Udala	Erronkariko Udala
Altsasuko Udala	Galipentzuko Udala	Sadako Udala
Anueko Udala	Garaioako Udala	Zangozako Udala
Agoizko Udala	Gardeko Udala	Sunbillako Udala
Araizko Udala.	Goizuetako Udala	Uharte Arakileko Udala
Arantzako Udala	Hiriberri Aezkoako Udala	Urdazubiko Udala
Arbizuko Udala	Igantziko Udala	Urdiaingo Udala
Artzibarko Udala	Imozko Udala	Urraulgoitiko Udala
Aresoko Udala	Irañetako Udala	Urraulbeitiko Udala
Aribeko Udala	Irurtzungo Udala	Urrozko Udala
Arruazuko Udala	Izabako Udala	Urrotz Hiriko Udala
Atezko Udala	Iturengo Udala	Urzainkiko Udala
Aurizko Udala	Itzaltzuko Udala	Uztarrozeko Udala
Bakaikuko Udala	Xabierreko Udala	Bidankozeko Udala
Basaburuko Udala	Lakuntzako Udala	Esako Udala
Baztango Udala	Larraungo Udala	Ziordiko Udala
Beintza Labaiengo Udala	Leitzako Udala	Zubietako Udala
Berako Udala	Lekunberriko Udala	Zugarramurdiko Udala
Bertizaranako Udala	Lergako Udala	Lizoain - Arriasgoitiko Udala
Beteluko Udala	Lesakako Udala	Arakil Ibarreko Udala
Burgiko Udala	Ledeako Udala	Erroibarko Udala
Kasedako Udala	Ilunberriko Udala	Ibargoitiko Udala
Donamariako Udala	Luzaideko Udala	Itzagaondo Ibarreko Udala
Doneztebeko Udala	Eloko Udala	Longida Ibarreko Udala
Elgorriagako Udala	Otsagabiko Udala	Erronkariko Udala
Eratsungo Udala	Oizko Udala	Olloibarko Udala
Eslabako Udala	Olaztiko Udala	Ultzama Ibarreko Udala
Esteribarko Udala	Oroz Beteluko Udala	Untziti Ibarreko Udala
Etxalarko Udala	Orreagako Udala	

IBARREKO BATZARRAK		
Erronkari Ibarreko Batzarra	Aezkoa Ibarreko Batzarra	Zaraitzu Ibarreko Batzarra

MANKOMUNITATEAK		
Sakanako Mankomunitatea		

ERAKUNDE SEKTORIALAK		
Landa Hotelen Elkartea - RECKREA	AMUR (Nafarroako landa-eremuetako emakumeen elkartea)	Sakanako Enpresaburuen Elkartea
Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera	CAIXABANK	CCOO
EHNE	UCAN	UAGN



1. grafikoa. Cederna Garalur-era elkartutako erakundeak.

2. irudia. Lesaka. Iturria: Atxaspi hotela

LAN ESTRATEGIA

Ikuspegia eta lan-printzipioak

Cederna Garalur Elkarteak, bere azken xedeak betetze aldera, lan-estrategien plangintza egin eta berraztertu egiten ditu aldizka, bai osotasunean (Nafarroako Mendialdeko lurralde osorako), bai tokian tokikoa (eskualdeen premien eta berezitasunen arabera). Horretan guztian bere lan-printzipioei jarraitzen die, alegia:

- Cederna Garalur *ELKARTEA* da; hau da, bere lanean elkar harturik dihardu elkartutako erakundeek antzemandako premiei eta eskaerei aurre egiten. Elkartutako erakunde horiek dira, aldi berean, Cederna Garalur Elkarteak haien lurraldeetan betetzen duen lanaren erantzuleak eta azken onuradunak.
- Horregatik, Cederna Garalur Elkarteak *Nafarroako Mendialdean, bertatik, harengatik eta harentzat* egiten du lan, bertan bizi diren pertsonentzat eta bertan dauden enpresentzat eta erakundeentzat.
- Elkarteak, bere lana burutzeko, Europako *LEADER* programako "*behetik gorako*" metodologia darabil: elkartearen epe luzerako estrategiak tokian tokiko premietatik sortzen dira, eta, aldi berean, eskaera horiei erantzungo dieten proiektuak eta ekimenak martxan jartzeko esparrua dira.
- Elkarte irekia, parte-hartzailea eta proaktiboa da Cederna Garalur, eta sektore publikoko eta pribatuko hainbat talderen, elkarteren eta administrazioren elkargunea da.
- Hortaz, Cederna Garalur Elkartea gai da bestelako erakunde publikoekin eta pribatuekin sinergiak sortzeko eta lankidetza-esparruak finkatzeko, tokian tokikoak, eskualdekoak, naziokoak nahiz Europakoak izan berin.
- Cederna Garalur Elkarteak konpromisoa du Nafarroako Mendialde osoko herritarren aukera-berdintasunarekin, gazteenarekin eta, bereziki, emakumeenarekin.



1. irudia. Cederna Garalur Elkartearen lanaren printzipioak.

Helburuak

Cederna Garalur Elkartearen azken helburua da "Nafarroako Mendialdearen garapen endogenoa, jasangarria eta bateratua suspertzea".

- Garapen endogenoa lurraldearen natura-, historia- eta kultura-, ingurumen-, ekonomia- eta giza baliabideak baliatuz.
- Garapen jasangarria tokian tokiko ekonomia bultzatuz, arestian aipatutako baliabideen erabilera adimentsu, berritzaile eta arduratsuaren bitartez, Nafarroako Mendialdeko herrietan gizarte- eta ekonomia-ehuna finkatze aldera, eta herritarrak bertatik joatea saihestu eta gure landa-eremuen bideragarritasuna bermatze aldera.
- Nafarroako Mendialdeko eskualde guztien garapen bateratua eta elkartasunezkoa, esperientziak elkarri trukatzea ahalbidetuz, eta guztionak diren jardun-elementuak identifikatuz.

Hiru helburu nagusi horiek baliagarriak dira elkartearen berariazko helburuak definitzeko:

- Toki-garapena bultzatzea Nafarroako Mendialdean, lurraldeko eragileen arteko lankidetza suspertuz: tokiko eta eskualdeko erakunde publikoak, enpresak, elkarteak eta herritarrak; erabilgarri dauden baliabideak eraginkortasunez eta eragimenez errentagarri bihurtzeko.
- Aipatu eragileen arteko komunikazio-bideak ezartzea, lanerako esparru bateratuaren inguruko kontzientzia sendotzeko; "Nafarroako Mendialdea", arazoak eta konponbideak partekatzen dituen eremu fisiko, ekonomiko eta giza eremu gisa ulertuta.
- Landa-eremuen ekonomia-garapena sustatzea, ekintzaileei laguntza-zerbitzuak emanez eta gaur gero lurraldean egon badauden ekonomia-jarduerak hobetuz, finkatuz eta dibertsifikatuz.
- Kalitatea oinarri edukiko duen turismo-xedea garatzea.

Lan-esparruak

Helburu horiek lortzeko, Cederna Garalur Elkarteak bost lan-esparru zehaztu ditu: toki-garapeneko estrategiak; ekintzailetzarako eta enpresentzako laguntza-zerbitzuak; zerbitzuak, merkataritza, ondarea eta turismoa; lehen sektorea eta baso-sektorea; eta teknologia berriak, partaidetza eta berdintasuna. Horien bitartez, Cederna Garalur Elkarteak epe labur, ertain eta luzerako jardunak jarri ditu martxan ikuspegi oso batekin; horietan lurraldeko eragileak (enpresak, udalak, herritarrak) inplikatzen ditu, eta Nafarroako Mendialdeko baliabideak kapitalizatzen eta ekintzen eragina maximizatzen ditu.



2. irudia. Cederna Garalur Elkartearen lan-arloak

Garapen endogenoaren printzipioari lotuta, Cederna Garalur Elkarteak ohiko hainbat ekonomia-jarduera hobi identifikatu ditu.

- Lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaiena, eta tokiko produktuei balioa ematea.
- Baso-sektorea, ikuspegi hirukoitzetik: biomasaren ustiapena, zura merkaturatzea, nahiz erabilera berriak (mikologia, kasu).
- Herrietako dendak; ez soilik ekonomia-jarduera gisa hartuta, baita tokian toki produktuen erakusleiho gisa ere, tokiko kontsumoari eta banaketa-zirkuitu laburrei bultzada emanez.
- Nafarroako Mendialdeko esku-langintza eta natura-, historia-, kultura- eta etnografia-ondare aberatsa, eskualde- eta nazio-mailan aitortuak dituen alderdi berezi eta bereizle ugari dituena.
- Turismoa, kalitatearen eta bikaintasunaren aldeko apustua eginda, eta Nafarroako Mendialdearen ondarearekin loturiko aisia-jarduerak garatzea.

Bi sektore estrategikotan banaturik (lehen eta baso-sektorea, eta zerbitzu-sektorea), ekonomia-jarduerak sustapenerako oinarri dituen bi zutabe dira, funtsezkoak Nafarroako Mendialdearen garapenerako. Eta hori guztia, erakundearen printzipioei loturik; hots, parte-hartzea, komunikazioa eta aukera-berdintasuna bermatzea.

Elkartearen giza baliabideak

Cederna Garalur Elkarteak, bere helburuak lortzeko eta bere ekimenak garatzeko, 18 laguneko giza taldea dauka, hainbat profiletan adituak (landa-berrikuntza, ekintzailetza eta enplegua, Europari buruzko informazioa eta teknologia berriak). Parte hartzen dute proiektuak definitzen eta garatzen, eta haien ezagutza eta esperientzia partekatzen dituzte.

Horrez gain, talde horrek hainbat finantzaketa-iturritatik datozen baliabide ekonomikoak erakartzen, jasotzen eta kudeatzen ditu, elkartearenak berarenak edo, eskualdez eskualde, elkartutako erakundeenak diren proiektuak martxan jartzeko.

GIZA BALIABIDEAK	18

LANTALDE TEKNIKOAREN EGINKIZUNAK (*)	
Zuzendaritza/gerentzia	1
Administrazioa eta kudeaketa	4
Ekintzaileei eta enpresei sostengua	12
Landa-garapena eta -berrikuntza	10
Teknologia Berriak	1
Turismoa	3

BALIABIDE TEKNIKOAK	
Tokiko enplegu- eta garapen-agentziak	8
Jendeari harrera egiteko bulegoak	17

ZERBITZUAK	
“Europa Direct” informazio-gunea	1
Zerbitzu-zentroak	3

2. taula. Cederna Garalur Elkartearen giza baliabideak eta baliabide teknikoak. (*) Pertsona batek hainbat eginkizun har ditzake bere gain.



3. irudia. Cederna Garalur Elkartearen bulegoak Nafarroako Mendialdean. Berdekoak arreta-guneak dira. Marroikoak zerbitzu-zentroak. Urdinekoa Europari buruzko informazio-bulegoa.

Enpleguko eta landa-garapeneko agentziak

Cederna Garalur Elkarteak zortzi tokiko enplegu- eta garapen-eragile ditu (TEGE); zazpi emakume eta gizon bat, zortzi eskualdetan lanean dihardutenak.



- Sakana
- Mendialdea-Leitzaran-Ultzama
- Malerreka-Bertizarana-Bortziriak
- Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi
- Esteribar-Erroibar-Aezkoa-Luzaide
- Pirinioaurreko arroak
- Erronkari-Zaraitzu
- Zangoza

TEGE baten helburu nagusia da haren eremuaren barneko baliabide ekonomikoak, sozialak, fisikoak eta giza baliabideak garatzea bultzatzea, horretarako baliatuz edo sortuz haren laneko lurralde-eremuaren barnean edo kanpoan diharduten eragile ekonomiko, sozial eta garapenekoen arteko lankidetza-esparru berriak.

Ildo horretan, eta Cederna Garalur Elkarteari dagokionez, tokiko enplegu- eta garapen-agentziak eskualdeen arteko lotunea dira, alegia, udalen, enpresen, elkarteen eta herritarren eta Cederna Garalur Elkarteko barneko lantaldeen artekoa. Elkarteak tokian tokiko premiei soluzioa bilatzeko lurraldearen esku paratzen dituen zerbitzuen berri ematen die; finantza- eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak jasotzen ditu, eta proiektuak garatzen ditu, bai elkartearen inguruan, bai kanpoko beste erakundeekin. Horrela, elkartearen helburuei laguntzen die (gogora ekarrita; Nafarroako Mendialdearen garapen jasangarria eta harmonikoa).

Zeharkako printzipioak

- Aukera-berdintasuna
- Ezagutzak besterentzea
- Ingurumen-jasangarritasuna
- Ekonomiaren jasangarritasuna
- Berrikuntza eta kalitatea

Printzipio orokorrak

- Eskualdearen errealitatearen, eta horren ahulezien, indarren eta aukeren analisia.
- Tokiko garapena, lurraldeko baliabideen bitartez.
- Ekintzen eta proiektuen ikuspegi integratzailea eta epe luzerakoa.
- Lankidetza tokiko ekonomia- eta gizarte-eragileekin.
- Martxan jarritako ekintzek sortutako eraginaren ebaluazioa

3. irudia. Tokiko enplegu- eta garapen-eragileen lan-printzipioak

Horrenbestez, lau dira tokiko enplegu- eta garapen-eragile baten funtsezko eginkizunak:

LURRALDEAREN ANALISIA

Lurraldeari buruzko azterlanak proiektuak lantzea, toki-erakundeentzat (publikoak nahiz pribatuak)

EKINTZAILEEI ETA ENPRESEI ARRETA EGITEA

BALIABIDEAK BILTZEA

Finantza- nahiz giza arloak, Cederna Garalur Elkartearen bitartez, nahiz bestelako iturriren bitartez, proiektuak garatzeko

ANIMAZIOA

FOROETAN PARTE HARTU

KOMUNIKAZIOA

Eginkizun global horiek honako ekintzotan gauzatzen dira:

- Enpleguko eta landa-garapeneko proiektuak kudeatu, tokian tokiko, eskualdeko, nazioko nahiz Europako programen bitartez finantzatuak.
- 'Nafarroako Mendialdea' Landa Garapenerako Programako (LGP 2007-2013) Leader-en 4. ardatzarekin lotura duten proiektuak kudeatu, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzaturik.
- Enplegua eta ekintzaileak babestu, enpresak sortzea eta finkatzea babestu, eta tokiko enpresa-ehuna babestu.
- Lurraldearen natura- eta kultura-ondarea defendatu eta balioa eman, proiektu bideragarri eta jasangarriak martxan jartze aldera.
- Lurraldearen gizartea eta ingurumena kudeatzeko, defendatzeko eta jasangarriak izateko laguntza eman, foroetan (Tokiko Agenda 21, kasu), lana adiskidetzeko tokiko itunetan, aukera-berdintasunekoetan, tokiko lan-batzordeetan eta halakoetan parte hartuz.
- Prestakuntza-, informazio- eta suspertze-ekintzak, tokiko herritarrei bideratuta.

CEDERNA GARALUR ELKARTEA 2014-2020 ALDIKO ERRONKA BERRIEN AITZINEAN

SARRERA

Azken lau urteotan, elkarteak aldaketa sakona bizi izan du, eta Nafarroako Mendialdean garapenerako aitzindari gisa duen ikuspegia eguneratu du:

- Batetik, xedea eta eginkizuna eguneratu ditu, eta horrekin elkarteak tokian tokiko premiei erantzuteko, zerbitzuak ematen dituen erakunde gisa dituen helburuak.
- Lan-estrategia eguneratu du. Bestalde, sortzen diren eta baliabide endogenoak ustiatzen dituzten lan-arloak definitu ditu.
- Barneko lantaldea berregituratu du, eta horren eginkizunak egokitu ditu. Halaber, pertsonal teknikoa lurraldera eraman du.
- Elkartea Nafarroako Mendialdera hurbildu du, eta parte-hartzea eta eztabaida sustatu ditu, ildo estrategikoak identifikatzeko eta Nafarroako Mendialdeko eskualdeetako eta bertako eragileen premia aldakorrei erantzungo dieten proiektuak definitzeko eta martxan jartzeko.
- Erakunde eta elkarte guztiekiko lankidetza indartu du, horiek Nafarroako Mendialdekoak izan nahiz ez, gaur gero erabilgarri ditugun baliabideekin gure jardun-esparruan kalitateko zerbitzuak eman ahal izateko.
- Lankidetza, jasangarritasuna eta aukera-berdintasuna identifikatu ditu, elkartearen edozein jardun eta estrategiarekiko zeharkako alderdi gisa.

Prozesu horren ondorioz, berrantolaketa hori elkartearen barne-estatutuetan jaso zen, eta horiek 2014ko batzar nagusian onartu ziren. Honako alderdiok azpimarra ditzakegu:

- Lurraldeka eta sektoreka lantaldeak sortzea.
- Zuzendaritza-batzordeko kide-kopurua handitzea, baita kideen profilari dagokionez ere.
- Elkartearen kuota-sistema aldatu da, kuota bakarrerantz eta "elkartasun-printzipiorantz" eginda.
- Berdintasun-politikak gehitu dira.
- Elkartutako erakundeen eta Cederna Garalur elkartearen zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen hizkuntza-eskubideak errespetatu eta bete.

LANTALDE BERRIAK

2013an eta 2014an LANIN-G proiektua garatu dugu. Horren xedea izan da tokiko-gobernantzarako formula berriak ezartzea, herrietako herritarrei irekita egon diren eskualde-mailako lantaldeetan oinarrituta. Talde horiek aldian-aldian elkartzen dira zonaldea bultzatzen eta herritarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten ekintzak eta ekimenak identifikatzeko, proposatzeko, analizatzeko eta martxan jartzeko. LANIN-G proiektuan eskualde-mailako 7 lantalde sortu dira.

Lan-dinamika hori baliagarria gertatu zaio Cederna Garalur Elkarteari, halaber, Nafarroako Mendialdeko diagnostiko sozioekonomikoak lurraldean bertan zuzenean kontrastatzeko, lurraldeko eragile berriak (enpresak, enpresa-elkarteak nahiz herritarren elkarteak) eta eskualde bakoitzaren errealitatera egokitutako estrategiak identifikatzeko. LANIN-G proiektua bukatuta, elkarteak egoki eta positibo iritzi dio Nafarroako Mendialdean halako lan-metodoari eusteari. Hortaz, honako lurralde-lantaldeak eratu dira:

Eskualdekako lantaldeak
Aezkoa, Esteribar, Erroibar, Luzaide, Auritz
Baztan-Bertizarana-Bortziriak-Malerreka
Pirinioaurreko arroak
Mendialdea-Leitzaran-Ultzama
Erronkari - Zaraitzu
Sakana
Zangoza

Lantalde sektorialak
Enpresa-ekimena, enplegua eta prestakuntza
Teknologia berriak, parte-hartzea, berdintasuna
Lehen sektorea, ingurumena eta baso-sektorea
Turismoa, merkataritza, zerbitzuak eta ondarea

4. irudia. Cederna Garalur Elkartearen eskualdekako lantaldeak

Cederna Garalur Elkartearen barne-araudian jasotakoaren arabera, lurraldeetako lantaldeak hiru hilean behin elkartzea adostu da, eta horietan herritarren eta lurraldeko eragileen parte-hartze aktiboa eta zuzenekoa bultzatzea. Lantalde horiek funtsezkoak dira Cederna Garalur Elkarteko lantalde teknikoak eskualdeetan proposatzen dituen lan-ildoak aztertzeko, baloratzeko, alderatzeko eta horiei oniritzia emateko; lan-ildo estrategiko horiek garatzeko aukerak eta nola gauzatu aztertuz, ekintza zehatzak baloratuz eta lanen lehentasuna ezarriz.

Eskualdeetako lantaldeen ondorioak eta proposamenak batzorde sektorialetara eramanen dira; aipatu batzordeak, elkartearen barne-araudiaren arabera, urtean bitan, gutxienez, elkartuko dira. Sektorerako ekintza-ildoak proposatuko dituzte Nafarroako Mendialde osoan lantzeko, eta lurraldean lanean diharduten eragile guztiak (toki-erakundeak, Nafarroako Gobernua, elkarte sektorialak, turismo-partzuergoak) behar bezala koordinatzeko bidea topatuko dute, eta baliabide ekonomiko eta teknikoak antzematen saiatuko dira.

Bi lantaldeen proposamenak elkartearen zuzendaritza-batzordeari aurkeztuko zaizkio, horrek balioetsi eta onar ditzan.

ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA

Europar Batasunaren landa-garapenerako LEADER programak betidanik azpimarratu du ezinbestekoa dela, landa-garapenerako estrategia eraginkorrak garatzeko, tokian tokiko erakunde publikoen eta pribatuen arteko jardun bateratua. Horri helduta, ezinbestekoa ikusten dugu lurralde bakoitzeko gizarte-, politika- eta ekonomia-

eragileen ordezkaritza egokia eta orekatua edukitzea, bai elkartean, bai zuzendaritza-batzordean.

Europar Batasunaren gomendio horri erantzunez, onartu berri ditugun estatutuek ondorengo taulak erakusten duen zuzendaritza-batzordea jasotzen dute, 34 kidek osaturik, eta honela banaturik:

Ordezkaritza-mota	Eskualdeetako ordezkari-kopurua
Herri-erakundeak, eskualdeka taldekatuak	17
Erakunde pribatuak, 4 sektoretan taldekatuak	13
Gizarte-erakundeak	4

HERRI ERAKUNDEAK: 17 ordezkari	ERAKUNDE PRIBATUAK 13 ordezkari	GIZARTE ERAKUNDEAK 4 ordezkari
Baztan Bortziriak Malerreka-Bertizarana Arakil Burunda Aranatz Larraun Ultzama Leitzaran Erroibar-Esteribar Aezkoa Zangoza/Zangozerria Agoitz Ilunberri Erronkari Zaraitzu	Turismoa, merkataritza, zerbitzuak eta ondarea: *4*	Gizarte- eta kultura-arlokoak: *1* (gazteak, emakumeak)
	Lehen sektorea, ingurumena eta baso-sektorea: *4*	Hedabideen elkarteak *1*
	Industria eta enpresaburuen elkarteak: *3*	Prestakuntza-, enplegu-arloko elkarteak: *1*
	Bestelakoak (finantza-erakundeak, merkataritza-ganbera) *2*	Ingurumen-arloko elkarteak, taldeak *1*

3. taula: Zuzendaritza-batzordearen osaera

ELKARTEAREN KUOTA SISTEMA

Tokiko herri-erakundeen kuotak sinplifikatze aldera, barne-araudi berriak eskualde-mailako kuota bakarra ezartzen du. Kuota horrek bi aldagai ditu: finkoa eta aldagarria, eskualde bakoitzaren herritar-kopuruaren arabera. 2014ko azken hiruhilekoan,

eskualde bakoitzak elkartutako udalerri bakoitzean ezarri beharreko kuota onartu du, kasu bakoitzean egokien iritzitako aldagaien arabera.

Kuota bakar horrek aukera ematen die elkartutako erakunde guztiei Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako mendialdean ematen dituen zerbitzuak jasotzeko, enplegurako eta eskualdearen garapenerako agentzien arreta barne.

Bestalde, zenbait erakunde pribaturen nahiz sozialen izaera berezia kontuan hartu da; horiek Cederna Garalur Elkartera atxiki daitezke diruzkoa ez den ordainketen bitartez edo espezietan ordainduta; hau da, produktu nahiz zerbitzuen bitartez, edo elkartearen proiektu zehatzetan prestakuntza espezializatua nahiz aholkularitza emanda.

Horrez gain, barne-araudi berriak elkartutako erakundeen arteko "elkartasun-printzipioa" gehitzen du, egoera berezietan elkarteari kuota ordaintzerik ez duten erakundeek ere parte hartu ahal izan dezaten.

BERDINTASUN POLITIKAK TXERTATZEA

Cederna Garalur Elkarteak betidanik izan du oso kontuan aukera-berdintasuna lurraldea garatzeko planetan eta proiektuetan. Bistan da Cederna Garalur Elkartea bezalako tokiko ekintza-talde baten estrategiek eta jardun zehatzak gizarte-kohesio handiagoa lortu behar dutela, egoera ahulean dagoen edozein kolektiboren desberdintasunak edo aukera-eza murrizte aldera. Ildo horretan, berebiziko garrantzi du landa-eremuan emakumeen ahalduntzea bultzatzeak.

Berdintasun-printzipioa elkartearen helburuetan eta printzipioetan balio gisa gehitzeko borondateak agerian jarri du Cederna Garalur Elkartea bat datorrela emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 3/2007 Legeko 30. artikuluan xedatutakoarekin, eta landa-garapenerako 45/2007 Legearekin; azken honek, 8. artikuluan (tratu- eta aukera-berdintasuna) honako hau jasotzen du espresuki:

"Landa Garapen Jasangarrirako Programan jasotako neurriek emekumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna errespetatu beharko dute landa-eremuan. Halaber, emakumeen aldeko neurri positiboak aurreikus daitezke landa-eremuan, sexu-arrazoiengatiko izatezko diskriminazio-neurriak gainditzera eta saihestera bideratuta."

2012ko abenduaren 20an, Cederna Garalur Elkartearen zuzendaritza-batzordeak aho batez onartu zuen erakundean genero-berdintasunerako plana burutzeko konpromisoa sinatzea.

2013an, berdintasunerako lantaldea eratu zen, eta genero-berdintasunerako diagnostikoa lantzen hasi zen. Lantaldea 9 lagunek (zuzendaritza-batzordeko kideak eta langileen ordezkariak) osatu dute.

BERDINTASUNERAKO LANTALDEA

ZUZENDARITZA BATZORDEA

- 2 udal
- 2 elkarte kolektibo pribatu

LANGILEAK

- 1 gerentzia
- 1 TEGE
- 1 prestakuntzako teknikaria
- 1 landa-garapeneko programako teknikaria
- 1 Sindikatuen ordezkari eta komunikazio-teknikari bat

Genero-berdintasunerako diagnostikoaren lanketa 2014an bukatu da. 2015ean, genero-berdintasunerako neurrien plana bukatuko da; berau, zuzendaritza-batzordeak onartu beharko du eta batzarrak berretsi urteko lehenengo seihilekoan.

Nolanahi ere, berdintasunaren ikuspegia erakundean txertatzeko borondateak aldaketa ekarri ditu 2014an. Genero-berdintasunerako diagnostikoak agerian utzi zuen elkarteak, bere politiketan eta estrategietan, genero-berdintasunaren aldeko konpromisoa azpimarratu beharra zeukala, elkartearen gobernu-organoen parekidetasunetik hasita. Horrenbestez, bi alderdi horiek estatutuetan jaso dira, zehazki V. Tituluan. Honela dio:

V. TITULUA. ELKARTEAREN ADMINISTRAZIOA ETA GOBERNUA

Elkartearen gobernu-organok eratzeko, aintzat hartuko da gutxienez % 40ko eta gehienez % 60ko partaidetza bi sexuetako edozeinetarako.

11º. artikulua.- Cederna Garalur Elkartearen gobernu- eta administrazio-eginkizunak lehendakariak, zuzendaritza-batzordeak, batzorde betearazleak eta batzar nagusiak beteko dituzte, bakoitzak berari dagokion eskumenean.

PROIEKTUAK

SARRERA

2014an, Cederna Garalur Elkarteak 11 proiektu landu zituen. Proiektu horien zati bat "Nafarroako Mendialdea" LGP 2007-2013 programak finantzatu zuen, baina baita Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) ere, nazioaz gaindiko Interreg IVB lankidetza-programaren bitartez eta eskualde-mailako bestelako hainbat laguntzaren bitartez. Horrela, 2014an, enpresa-ekimena eta enpresak bultzatzeko zerbitzuaren zati bat finantzatzen duen Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin hitzarmena sinatu zen. Bestalde, turismo-xedearen kalitatea sustatzeko zerbitzuak Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuaren laguntzak jaso zituen. Horiez gain, Europako Batzordeak % 60ko baterako diru-laguntza ematen du Europari buruzko "Europa Direct" informazio-zerbitzuarentzat.

Proiektu horiek gure elkarteak identifikatutako garapenerako estrategia batera edo hainbatetara bideratuta daude (ikus 2. irudia). Nolanahi ere, gure elkarteak landa-garapenaz duen ikuspegi integratzailearekin bat eginda, proiektuek diziplina anitzeko ikuspuntua izan dute, eta hainbat lan-arloa landu dituzte ekintzen Nafarroako Mendialdeko lurraldearekiko, bertako herriekiko eta jendearekiko eragina areagotze aldera.

	Landa-garapenerako estrategiak	**Lehen sektorea eta baso-sektorea**	**Enpresak eta enpresa-ekimena**	**Ondarea, turismoa, merkataritza eta zerbitzuak**	**IKTBaj, partaidetza eta berdintasuna**
Laguntza enpresei eta enpresa-ekimenari	★		★		
Basolan		★	★	★	
Cybersudoe'Innov			★		
Hurbileko landa-merkataritza			★	★	
ERNE			★		
Europa Direct	★				★
Prestakuntza enpresentzat			★		
Itera-aa		★	★		
Lanin-G	★				★
Merkat-ari			★	★	
Gure bideetatik				★	
Turismo-kalitateko zerbitzuak			★	★	

4. taula. 2014. urtea. Proiektuak eta horiei dagozkien arlo estrategikoak



2. grafikoa. Cederna Garalur Elkarteak landutako proiektuen ehunekoa, proiektu horien finantzaketa-iturriaren arabera

Finantzaketa edo baterako finantzaketa-iturria	Proiektuen baterako finantzaketaren ehunekoa
Hitzarmena Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin	Kopuru finkoa
Europako Batzordea (Europari buruzko informazio-zerbitzua, 'Europe Direct')	% 60
'Interreg IVB SUDOE' programa	% 75
“Nafarroako Mendialdea” Landa Garapeneko Programa (LGP), 2007-2013	% 100
“Nafarroako Mendialdea” Landa Garapeneko Programa (LGP), 2007-2013. Lankidetza-proiektuak	% 100
Turismo Departamentua Nafarroako Gobernua. Turismo-kalitateko zerbitzuak	Kopuru finkoa

5. taula. Cederna Garalur Elkartearen proiektuek jaso duten finantzaketaren edo baterako finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa-iturriaren arabera

BASOLAN



"BASOLAN: natura-baliabideen aprobetxamendua" izeneko proiektuak Nafarroako Mendialdeko baliabide nagusietako bat den baso-sektorearekin, basoaren ustiapen-eredu jasangarri batekin du lotura, basoaren aukera guztiak aintzat hartuko dituen ikuspegi integratzailea abiapuntu hartuta: energia-baliabidea biomasaren bitartez ustiatzea, zura industrian edo eraikuntzan erabiltzea, nahiz turismo-baliabide gisa baliatzea, hainbat espezie enblematikori balioa emanez, besteak beste, haritz atlantikoari, ugaria Nafarroako iparraldean.

Bi dira BASOLAN proiektuaren funtsezko helburuak:

1. Baso-baliabidea energia-iturri gisa ustiatzea, eta biomasak Nafarroako Mendialdean duen eskaintza-aukera identifikatzea, baliabide horren "mugikortasuna" erraztuz; alegia, ustiapena eta salmenta, toki-erakundeei biomasaren salmentan erabakiak hartzea ahalbidetuko dieten formulak edo esparru-akordioak hartuz.
2. Bestalde, turismo-produktu berritzailea garatzea, eskualdeetan dagoen turismo-eskaintza koordinatuko duena, eta, aldi berean, negozio-aukera berriak sortzea, Nafarroako Mendialdeko basoen izaera berezia jendea erakartzeko tresna gisa erabiltzea, eta zurak historian zehar gizakiarekin eta usadiozko giza jarduerekin izan duen lotura agerian paratzea.

BASOLAN proiektuak bi urteko iraunaldia izan du, 2014ra artekoa, eta aurrekontu globala 63.000 € izan da, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzaturik, 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programako Leader-en 4. ardatzaren bitartez.

Proiektuaren garapenak hiru fase nagusi ditu:

I BALIABIDEAK, KONTSUMOAK ETA ERAGILEAK IDENTIFIKATU	II EGITURAKETA ETA PROGRAMAZIOA	III SEKTOREA DINAMIZATU
• Baso-merkatuko eragileen inbentarioa • Baso-eskaintzak eta -eskaerak duten aukeraren diagnostikoa • Jarduera onen inbentarioa	• Baso-sektorea tartean sartzea • Ekintza-plana, baso-baliabideetan kudeaketa hobetze aldera	• Logistika-guneak • Turismo-produktua: "ARITZ"

Eskaintzak eta eskaerak duten aukeraren diagnostikoa

2014an bukatu zen Nafarroako Mendialdeko baso-sektorearen diagnostikoa. Agiri honetan sakon aztertu ditugu Nafarroako Mendialdeko basoen ezaugarriak, eta biomasa gisa ustiatzeko duten aukera. Horrez gain, jabetzarekin, ustiapenarekin, eraldaketarekin eta biomasako instalazioekin Nafarroan lotura duten eragileak identifikatu ditugu. Halaber, biomasako instalazioen inguruan landutako jarduera onen inbentario xume bat ere egin dugu.

Laburbilduz, 2014an:

- Nafarroako Mendialdeko baso-sektorearen diagnostikoa aurkeztu zen.
- Nafarroako Mendialdean baso-sektorearekin eta biomasarekin lotura duten 223 eragile identifikatu ziren (ikus 6. taula).
- Nafarroako iparraldean erabilgarri dagoen biomasaren analisia egin zen, udalerrika eta eskualdeka banaturik.
- Jarduera onen inbentarioa egin zen, biomasako instalazioen ingurukoa.
- Cederna Garalur Elkartearen web-orriaren barnean mikro-gune bat eman da argitara, BASOLAN proiektuaren emaitzen berri emate aldera (www.cederna.eu/productos/basolan).

6. taula. BASOLAN proiektua. Biomasarekin lotura duten eragileak.

Udalerriak mendi-zerbitzuak	150
Eragileen elkarteak	2
Baso-lanetako enpresak	23
Basoaren kudeaketarako ingeniaritzak	8
Zurgintzako enpresak eta zerrategiak	35
Biomasa ekoizteko enpresak	3
Energia-zerbitzuetako enpresak	2
GUZTIRA	***223***



5. irudia. BASOLAN proiektua. Ekoizpen-eremuetako mapa, eskaintzaren eta eskaeraren diagnostikoan identifikatutakoak.



3. grafikoa. BASOLAN proiektua. Ekoizpen-azaleraren ehunekoa eskualde bakoitzeko azalera guztiarekiko

6. irudia. BASOLAN proiektuaren webgunearen irudia, www.cederna.eu/proyectos/basolan

“ARITZ”: "harizti atlantikoei balioa ematea"

BASOLAN proiektuaren bigarren ardatza harizti atlantikoa jendea erakartzeko tresna gisa erabiliko duen turismo-produktu bat garatzea da. Haritz atlantikoa espezia enblematikoa da Nafarroako iparraldean, paisaiaren ikuspegitik edertasun handiko espeziea, balio sinboliko handikoa usadioetan eta ohituretan, eta gizakion jardunbidearekin harreman luze izan duena eta oso antzinatik datorrena. Horri guztiari onura atera asmo dio "ARITZ" proiektuak; garatuko duen turismo-eskaintzak gure lurraldeko turismo-zerbitzuak eta jarduerak eskainiko dizkio bisitariari.

2013. urtean, 'Haritzaren Mahaia' eratu zen Ariben, ARITZ proiektua martxan jartzeko jarduera-plana aztertu eta onartze aldera. Haritzaren Mahaia, gaur egun 9 lagunek osatua, bitan elkartu zen 2014an hainbat jarduera landuko dituzten eskualdeetarako ekintza-plan bat onartzeko. Hainbat epe ezarri zituen ekintzak martxan paratzeko, eta ARITZ produktua merkaturatzeak izanen duen kostua kalkulatu zuen.

Ildo horretan, Haritzaren Mahaiak harizti bakoitzak berezkoa duen balioa nabarmenduko duten ekintza zehatzak garatzea erabaki zuen, ARITZ baliatuz banakako ekintzak koordinatuko dituen marka gisa, bisitariei eskaintza globala ezagutzeko aukera emanez.

2014. urtean:

- Haritzaren Mahaiak bi bilera egin zituen; 2014ko martxoan, Larraintzarren (Ultzama), eta maiatzean Arbizun. Bileraren ondoren, laguntza teknikoak bi bisita gidatu antolatu zituen bileran parte hartu zutenentzat, turismo-produktuak egin ditzakeenaren antzekoak. Ultzamari dagokionez, Iraizozko hariztia bisitatu zuten, eta haritzak ohiko arkitekturan izan duen erabileraren berri azaldu zuten. Altsasun, berriz, Dantzaleku bisitatu zuten, garai batean ontzigintzan erabili izan zen zura eman zuen hariztia.
- 2014an, Haritzaren Mahaian 9 lagunek hartu zuten parte; 4 emakumek eta 5 gizonek. Horiek toki-erakundeak (3 lagun), garapenerako toki-agentziak (1), sektore pribatua (2), Cederna Garalur Elkartea (2), eta mahaia koordinatzen duen laguntza teknikoa ordezkatzen zituzten.
- ARITZ proiektua martxan paratzeko jarduera-plan bat idatzi zen (www.cederna.eu/productos/basolan eskuragarri).
- Nafarroako Mendialdean 5 eskualde egon zitezkeen gaiaren inguruko ekintzak lantzeko.
- Bost horietatik 3 hautatu ziren lehenengo jarduerak proposatzeko: Sakana (Altsasu, Etxarri-Aranatz eta Irañeta); Ultzama (Orgi-Iraizotz), eta Irati (Oroz-Betelu eta Aezkoa Ibarra).
- Jarduera-planak turismo-azpiproduktuak sortzeko gaikako ardatzak identifikatu zituen: natura (balio zientifikoa eta paisajistikoa); basogintza eta abeltzaintza; eta industria (upelgintza eta eraikuntza).
- Jarduera-planak, orobat, prestakuntza-ekintzak, ingurumen-boluntariotza, bisita gidatuak eta hainbat motatako 11 jarduera ere proposatu zituen, ustiatu asmo den adinaren, eskualdearen eta gaiaren arabera.

7. taula. Haritzaren Mahaia. Parte hartzen duten erakundeak

Laguntza teknikoa	Cederna Garalur Elkartea	Toki-entitateak	Tokiko garapen-agentziak	Sektore pribatua	*GUZTIRA*
1	2	3	1	2	*9*



7. irudia. ARITZ proiektuko ekintzak martxan paratzeko aukeratutako eskualdeak

8. irudia. Dantzaleku hariztira (Altsasu) egindako bisita gidatua

8. taula. ARITZ. Gaien araberako ibilbide gidatuak

		Gaiak		
Eskualdea	**Herria**	**Natura (zientzia eta paisaia)**	**Basogintza eta abeltzaintza**	**Industria eta eraikuntza**
Irati	Aribe	Haritza eta antzinako bideak		
	Orotz-Betelu		Haritza eta baso-mintegia	
	Garralda	Haritza eta intsektuak		Haritza eta enologia
Sakana	Altsasu			Haritza eta itsasontzigintza
	Etxarri Aranatz	Haritza eta saguzarrak	Haritza eta bazkalekuak	
	Irañeta	Haritza eta zuhaitz zaharrak		
Ultzama Basaburua	Iraizotz			Haritza eta usadiozko egiturak
	Orgi (Lizaso)	Haritza eta baso-igel jauzkaria. Haritza eta eremu babestuak.		Haritza eta biomasa
	Jauntsarats	Haritza eta monumentu-zuhaitzak		

9. irudia. Ariben leheneratutako pasagunea.

ITERA-AA: berrikuntza landa-eremuetako nekazaritzako elikagaien sektorean

ITERA-AA, "Berrikuntza landa-lurraldeetan nekazaritzako, nekazaritzako elikagaien eta elikagaien enpresekin", estatuz gaindiko proiektua da, eta Europar Batasunaren baterako finantziazioa dauka, Interreg IVB SUDOE programaren bitartez. Proiektuan Espainiako, Frantziako eta Portugalgo 6 bazkidek hartzen dute parte. Proiektuak bi urteko iraunaldia eduki du, Cederna Garalur Elkartearen aurrekontua 112.978 € izan da, 736.276 €-ko aurrekontu osoarekiko.

ITERA-AA proiektuaren helburua landa-eremuetan nekazaritzako elikagaien sektorea sustatzea da, berrikuntza baliatuta, hiru ikuspuntutatik abiatuta:

PRODUKTUAREN BERRIKUNTZA
Tokian tokiko produktuen balio erantsia indartuz, eta tokian tokiko merkatuetan nekazaritzako elikagaiak besteetatik bereiziko dituen eskaintza sortuz, merkatuan ikusgaitasuna irabazte aldera

BERRIKUNTZA MERKATARITZAN ETA MARKETINEAN
Tokian tokiko eskaintza eta eskaera hurbilduz, eta bide laburretako merkaturatze-zirkuituak sustatuz, eta tokiko nekazaritzako elikagaien lurralde-marka bat sortuz

IBERRIKUNTZA GIZA BALIABIDEETAN
Prestakuntza espezializatua eta lanbide-gaitasun berriak emanez

Europak gaur egun bizi duen ekonomia-krisiaren testuinguru honetan, ohiko nekazaritzako elikagaien sektoreak lehian jardun beharra dauka laborantza- eta eraldatze-teknika berriekin; horiek, gogorragoak izan daitezke ingurunearekin, baina, zalantzarik gabe, lehiakorragoak merkatuan. Horregatik, nekazaritzako elikagaien enpresa txikiek berritu beharra dauzkate, bai produktua bera, bai merkaturatzeko teknikak. Produktuei kalitateko ezaugarri gehigarria eman behar diete, produktu horiek duten besteekiko berezitasunetan oinarrituta. Halaber, kontsumitzaile-sektore berrien eskaera lortu behar dute, eta merkaturatzeko bide berriak erdietsi, beren eskaintza

"*hurbiltasuneko bideetako*" edo "*zirkuitu laburretako*" nahiz Internet bidezko bestelako banaketa-bideetako bezeroei hurbiltzeko.

2013an, Cederna Garalur Elkarteak nekazaritzako elikagaien sektoreak Nafarroako Mendialdean zuen egoerari buruzko diagnostikoa landu zuen, bai ekoizpenaren, bai merkaturatzearen ikuspuntutik aztertuta. Diagnostiko horretarako, 77 elkarrizketa egin zizkien nekazaritzako elikagaien sektoreko beste hainbeste enpresari eta erakunderi. Diagnostikoaren emaitzak "Berritu merkatutik: ekoizpena eta komertzializazioa" izeneko azterlanean (urte bereko azaroan aurkeztua) jaso ziren. Nafarroako Mendialdeko Nekazaritzako elikagaien sektoreak bizi duen egoera jaso zuen; sektorearen premiak, eskaerak eta ekoizpena zuzenean banatzeko dituzten zailtasun nagusiak.

'Berritu merkatutik' izeneko azterlana. Azterlanean parte hartu zuten erakundeak	
Agronatura-Fundagro	Nafarroako harakinen gremioa
Erronkariko Landetxeen Elkartea	INTIA – Nafarroako nekazaritzako elikagaien teknologien eta azpiegituren institutua
Nafarroako ostalaritza-elkartea	KARRAKELA - Gauza ekologikoen denda
Nafarroako sagardogileen elkartea	Hemeneus
ANAPEH – Nafarroako ostalaritza-enpresa txikien elkartea	LANDARE - Produktu ekologikoen kontsumitzaileen elkartea
Bertizko Partzuergoa – 'Hiruak Bat' landetxeen elkartea	Iruñeko Zabalguneko merkatua
Coto Valdorba	Ermitagañako merkatua
NNPEK – Nafarroako nekazaritza-produkzio ekologikoaren Kontseilua	Santo Domingoko merkatua
EHNE – 'Bizilur' kontsumo-taldea	Tomate Gorriak - Kontsumo-taldea
El AlmaZén - Sumaconcausa	

Azterlan horretatik ateratako ondorioak baliagarriak izan ziren 2014an landutako ekintzak planifikatzeko, honako hauek lortze aldera: enpresa ekoizle txikien, jatetxe-sektoreko eta merkaturatze-sektoreko adituen eta toki-erakundeen arteko harremana bideratzea; produktuak bide alternatiboetatik ("*zirkuitu laburrak*", kasu) saltzea sustatzea; nekazaritzako elikagaien sektorera bideratutako prestakuntza-ekintza espezializatuak diseinatzea.

10. irudia. ITERA-AA proiektuaren bideoa YouTuben eskuragarri:
https://www.youtube.com/watch?v=bI6qBfS0c_s&list=PLjhB9-9OhIU5PGBUv3f75uIOclAefVEla

Horrez gain, nekazaritzako elikagaien sektoreko hainbat elkarterekin harremanak eduki genituen, besteak beste: ICAN (*Reyno Gourmet Navarra*); NNPEK (*Nafarroako nekazaritza-produkzio ekologikoaren kontseilua*); baita ikerketan diharduten erakundeekin ere, besteak beste, INTIA (*Nafarroako nekazaritzako elikagaien teknologien eta azpiegituren institutua*), eta NUP (*Nafarroako Unibertsitate Publikoa*).

NUPekin izandako harremanen emaitza izan zen sinatutako hiru hitzarmenak produktuak eta ikerketa-prozesuak hobetzeko, honako arlo hauetan: Bidasoko eta Baztango gaztaina autoktonoa Iruñerrian merkaturatzea; kiwiaren azpiproduktuak, eta moxal ekologikoz landutako hanburgesen kalitatea hobetzea, Kasu guztietan, Cederna Garalur Elkarteak azterlanen zati bat babestu zuen ITERA-AA proiektuaren bitartez. Azterlan horiek karrera-amaierako proiektu gisa burutu ziren.

Proiektuak iraun dituen bi urteetan:

- 77 elkarrizketa egin zitzaizkien nekazaritzako elikagaien enpresa ekoizle txikiei.
- 19 elkarrizketa egin zitzaizkien nekazaritzako elikagaien banaketarekin eta komertzializazioarekin lotura duten elkarteei eta erakundeei.
- Nekazaritzako elikagaien merkatuan izandako berrikuntzari buruzko azterlana eman zen argitara. Berrikuntza hori ekoizpenaren eta merkaturatzearen arloetan zentraturik. Azterlana Cederna Garalur Elkartearen web-orrian dago eskuragarri: www.cederna.eu helbidean.
- Nekazaritzako elikagaien sektorean izandako berrikuntzarekin lotura zuten 16 jarduera onen inbentarioa egin zen.
- Lau topaketa egin dira, eta horietan izan dira ekoizleak, toki-erakundeak, dendari- eta turismo-elkarteak, jatetxe- eta merkaturatze-sektoreko profesionalak. Bileren

xedea izan da lankidetza-aukerak identifikatzea, "*zirkuitu laburra*" izenekoan merkaturatzea bultzatze aldera.

- Mendialdeko Gourmet produktuen herri-dastaketa bat egin zen 2014ko ekainean, Esan.
- Zortzi merkataritza-diagnostiko egin zitzaizkien tokian tokiko 15 ekoizleri.
- Produktua berritzeko, produktua merkaturatzeko, marketineko, antolakuntzako eta giza baliabideak kudeatzeko lau tailer eman ziren, eta denetara 28 lagunek hartu zuten parte (10 emakume eta 18 gizon).
- Hiru lankidetza-hitzarmen sinatu ziren NUPrekin produktuak eta ekoizpena hobetzeko 3 azterlan egiteko: aipatu produktuak gaztaina, kiwia eta moxal ekologikoz landutako hanburgesa ziren.
- Proiektua koordinatzeko 4 bileratan parte hartu genuen, Portugalen (2013ko urtarrila), Granadan (2013ko iraila), Lekunberrin (2014ko otsaila) eta Figéac-en (2014ko azaroa).
- Azterketa-bisita bat egin zen Grosseto (Italia) probintziara, nekazaritzako elikagaien sektorean esperientzia berritzaileak ezagutzeko, bai enpresa-ekimenei dagokienez, bai lurralde-markei dagokienez ere.

11. irudia. ITERA-AA proiektua. Koordinazio-bilera Lekunberrin (2014ko otsaila). Bisita 'Katealde' enpresara.

Horrez gain, 2014ko koordinazio-bilerek lan-saio irekiak izan dituzte ekoizleentzat eta toki-erakundeentzat. Horrela, "*Lurralde Marka*" izeneko markara elkartutako enpresak bisitatu zituzten: hau da, Katealde, Arbizu hestebeteak, Maskarada, Bikain gaztandegia eta Arbizuko errota. Eta azaroan egin zen azken bileran, Figéac-en, "Tokian-tokian jardun tokiko lurraldeetan balio erantsia iraunarazteko" izenburua zeraman saioa egin zen, eta enpresa txikiak bisitatu genituen, besteak beste: "Moulin de Nadal" ustiategi ekologikora ("Lou Secadou" izeneko lantegi komunitarioan bere produktua eraldatzen duen txerritegia); bere proiektua tokiko elikagaien inguruan eta desgaitasuna duten pertsonei zuzenduta garatu duen elkartera (ESAT de l'Abeille); eta "Passeuses de goût" elkartera, sukaldaritzako zaporeak besterentzen diharduen elkartera.

Bestalde, Italiara egindako azterketa-bisitan, Cederna Garalur Elkarteko zuzendaritza-batzordeko hainbat kidek parte hartu zuten, elkartearen lehendakariaz gain. Bisita baliagarria izan zen hainbat erakunderen jarduteko modua eta lan-metodologia ezagutzeko; besteak beste, *Grosseto Export* partzuergoarena, bertako nekazaritzako elikagaiak sustatzen diharduena; *FAR Marenma* tokiko-ekintza-taldearena; *Laguna de Orbetello Pesca Ltd* kooperatibarena; Gaztainaren ibilbidearen elkartearena; nahiz *MeTe* zentroarena, enologia eta gastronomia lantzen dituena.

12. irudia. Tokiko produktuak dastatzeko jardunaldiak. Esa (Nafarroa) 2014ko ekaina

13. irudia. Azterketa-bisita Grosseto-ra (Italia)

GURE BIDEETATIK

"Gure bideetatik" Cederna Garalur Elkartearen eta Nafarroako Erdialdearen garapenerako elkartearen arteko lankidetza-proiektua da, azken bi urte horietan landutakoa. Proiektuak 141.500,46 €-ko aurrekontu globala izan du (98.095,32 Cederna Garalur Elkarteak), eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzatu dute 'Nafarroako Mendialdea' Landa Garapenerako Programako (LGP 2007-2013) Leader-en 4. ardatzaren bitartez.

Ekimenaren xedea da landa-eremuetako bideak ezagutzera ematea eta balioa ematea, bai herrien eta kontzejuen arteko mugikortasuna errazten dutenak, bai kirol-erabileretarakoak direnak (bizikleta-ibiliak, mendiko zirkuituak), bai abelbideak, garai bateko trenbideak orain natura-bide bihurtuak, bai ibilbide historikoak nahiz Done Jakueren bidea. Horrek guztiak bideen sarea ehuntzen du: Xede bikotza dauka sare hori ezagutzeak, mantentzeak eta berreskuratzeak:

1. Landa-eremuko herrien artean mugikortasuna erraztea; hau da, herrien eta kontzejuen artean irisgarritasuna erraztea ibilgailu motordunentzat ez diren bideen bitartez.
2. Tokiko turismoa sustatzea, usadiozko toki-baliabideetan oinarritua; horrek aukera ematen du bisitariak landa-eremuetako eguneroko errealitatean murgiltzera.

Proiektuak 3 fase ditu: Egun dauden bideak ikertu, analizatu eta aztertu edo komunikazio-bideak hobetu; sentsibilizazio- eta parte hartzeko fasea; eta azkena, bideen sareei balioa ematea promozio-ekintzen bidez.

I. FASEA: BIDEAK IDENTIFIKATU. AZTERKETA ETA ANALISIA

- Bideen inbentario bat landu
- Natura-bideetan, besteak beste, esku hartzeko azterketa eta balorazioa

II. FASEA: "BIDEAK EGINEZ". SENTSIBILIZAZIO ETA PARTE HARTZEA

- Aurkezpenak, erakusketak, jolasak eta txangoak

III. FASEA: SUSTAPENA ETA ZABALPENA

- Girotze-ekintzak
- Teknologia berriak erabili

2013an zehar, Cederna Garalur Elkarteak bideen inbentario bat landu zuen; tokiko ibilbideak identifikatu zituen, eta horiek deskribatu eta ibiltarteak digitalizatu zituen. Halaber, Plazaola trenaren (Irurtzun-Iruñea tartean) eta Irati trenaren (Lizoain eta Zangoza tartean) natura-bideko udalaz gaindiko plan sektorialeko (UGPS) afekzioak baloratu ziren, baita Bidasoko eta Plazaolako natura-bideak lotzeko ingeniaritza-proiektua ere. Gainera, hainbat sentsibilizazio-bilera egin ziren, eta Nafarroaren Erdialdea garatzeko Elkartearekin lankidetzan "Gasna eta ardoa, bidelagunak" izeneko lehiaketa jarri zen martxan Facebook-en.

14. irudia. "Gasna eta ardoa, bidelagunak" lehiaketaren irabazleak. Oibar. 2014ko urtarrila

2014an landutako ekintzek proiektuaren III. fasea (animazio-ekintzetan eta teknologia berrien erabileran oinarritua) izan zuten oinarri. Urte horretan, eta Google Earth baliatuta, 4 hegaldi birtual egion dira, Nafarroako Mendialdeko beste hainbeste bide-sareren gainean. Ibilbideez gain, hegaldi birtual horiek ibilbideen inguruan dauden 184 interes-gune identifikatzen dituzte. Gainera, sentsibilizazio-jardunaldiak eta bi lasterketa antolatu ziren, tokian tokiko bideak aisiarako, kirolerako eta turismorako sustatze aldera.

Zehazki, 2014an:

- Kirol-erabilerarako tokiko bidezidorren sarea, eta bestelako ibilbideak identifikatu eta digitalizatu ziren, Erroibarren. Guztira, 26 ibilbide jaso dira inbentarioan; denetara, 130 km. Ibilbide bakoitzerako (behar bezala digitalizatuak), fitxa bat landu da PDF formatuan: ibiltartea, lurraren profila, eta ibilbidearen deskribapen txiki bat. Nola ibiltarteak, hala banakako fitzak Erroibarko web-orrian daude eskuragarri: http://www.erroibar.net/turismo/punto-de-informacion.
- Bost sentsibilizazio-jardunaldi antolatu ziren, Nafarroako Mendialdeko bideak ezagutzera emateko eta horiek nola hobetu eztabaidatze aldera. Jardunaldi

horietan, denetara, 64 lagunek hartu zuten parte, eta Oibarren, Erroibarren, Arbizun, Erronkarik eta Larraintzarren (Ultzama) burutu ziren.

- Google Earth erabilita, 4 hegaldi birtual sortu ziren: Irati trenbidearen natura-bidearen, Erroibarko tokiko bideen sarearen, eta Basaburuko eta Imozko toki-bideen gainekoak. Lau hegaldi horiek 42 bide edo ibiltarte jasotzen dituzte, eta denetara 307 km hartzen dute, intereseko 184 punturekin.
- 2014ko abuztuan, martxa nordiko bat antolatu zen Oskotzen, eta 30 lagunek hartu zuten parte.
- 2014ko irailean, zonaldeko bideetan barrena "800 dukado" lasterketa antolatu zuten; emakumezkoen kirola eta tokiko turismoa sustatzera bideratutako ekimena, turismo-zerbitzuen bitartez.



15. irudia. Erroibarko bideen sareko "Aintzioa-Esnotz" bidezidorraren deskripzio-fitxa. Argibide gehiago: http://www.erroibar.net/turismo/punto-de-informacion

9. taula. Tokiko bideak hobetzeari buruzko sentsibilizazio- eta eztabaida-jardunaldia.

Herria	Data	Partaideak
Oibar	2014/03/31	27
Lintzoain (Erroibar)	2014/04/11	7
Arbizu	2014/09/23	10
Erronkari	2014/10/01	8
Larraintzar (Ultzama)	2014/11/12	12
GUZTIRA		***64***

10. taula. Hegaldi birtualak. Adierazleak.

Ibilbidearen izena	Bide edo bidezidorrak, guztira	Tartea (km)	Interes-puntuak
Basaburua-Imotz	22	60	35
Orotz Betelu - Aezkoa Ibarra	4	25,23	49
Erroibar	25	134,69	33
Iratiren natura-bidea	1	87,46	67
GUZTIRA	***52***	***307,28***	***184***



16. irudia. Orotz Beteluko eta Aezkoa Ibarreko ibilbideen gaineko hegaldi birtuala.



17. irudia. Aezkoa Ibarreko ibilbidea Orbara udalerriko ondare-elementu baten xehetasuna.

18. irudia. Martxa nordikoa Oskotzen. 2014ko abuztua

19. irudia. “800 dukado” lasterketa. 2014ko iraila.

11. taula. 'Gure bideetatik' proiektua. Amaierako gauzatze-adierazleak

I. FASEA: BIDEEN INBENTARIOA	
Ekintza	**Deskribapena**
Plazaolaren natura-bidea	Udalaz gaindiko plan sektorialeko (UGPS) afekzioak eta desjabetzeak baloratu, Irurtzun-Iruñea tartean berreskuratzeko.
Bidasoaren natura-bidea	Bidasoaren eta Plazaolaren natura-bideak lotzeko ingeniaritza-proiektua landu.
Iratiren natura-bidea	Lizoain eta Zangoza arteko UGPS kudeatu eta bideratu.
	UGPS azaltzeko 8 bilera.

Ekintza	Bide-kopurua	Luzera (km)	Identifikatutako guneak guztira
Anue	11	33	
Basaburua (*)	14	41,5	35
Imotz	8	19	
Odieta	10	19,7	
Aezkoa Ibarra (*)	4	23,35	49
Erroibar (*)	25		33
Ultzama Ibarra	19	43	

Iratiren natura-bidea (*)		87,46	67
Guztira	***91***	***267,01***	***184***

II. FASEA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE HARTZEA			
Ekintza	**Non**	**Data**	**Partaideak**
Imozko bidezidorren egun	Imotz	2013/09/29	100
"El Irati" liburuaren aurkezpena	Urrotz Hiria	2013/10/25	14
"Caminos de mercado" (azoka-bideak) hitzaldia	Urrotz Hiria	2013/11/16	20
"Ogia eta gasna, bidelagunak" gymkhana	Facebook	2013- 2014	
Guztira		***134***	

III. FASEA: ZABALPENA		
Ekintza	**guztira.**	**Adierazlea**
Sentsibilizazio-jardunaldiak	5	64
Hegaldi birtualak	4	
Lasterketak eta txangoak	2	100

20. irudia. Bideoa: 'Gure bideetatik'. YouTuben eskuragarri:

http://www.youtube.com/cedernagaralur

HURBILEKO LANDA-MERKATARITZA

"Hurbileko landa-merkataritza" izeneko proiektua Cederna Garalur Elkarteak eta Nafarroako Erdialdearen garapenerako Elkarteak elkarrekin martxan jarritako proiektua da, 2015ean lantzekoa. Proiektuak 92.875,65 €-ko aurrekontu globala du (55.248,37 € Cederna Garalur Elkartearentzat), eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzatu dute 'Nafarroako Mendialdea' Landa Garapenerako Programako (LGP 2007-2013) Leader-en 4. ardatzaren bitartez.

Proiektuaren xedea da landa-eremuetako merkataritza-sektorearen garrantzia aitortzea eta sektorea sustatzea, merkataritza baita herrietako ekonomia-ehunaren benetako dinamizatzailea; sortzen eta mantentzen duen zuzeneko eta zeharkako enpleguagatik, tokian tokiko produktuak sustatzen eta merkaturatzen egiten duen lanagatik, eta, finean, beste zerbitzuen eta sektoreen (turismoa, kasu) osagarria izateagatik. Helburu nagusiak dira:

1. Herritarrak kontsumo arduratsuaren inguruan sentsibilizatzea, herrietako denden produktuak eta zerbitzuak aintzat hartuta.
2. Herrietako dendek eskualdeetako ekonomia- eta gizarte-ehunean duten garrantzia aitortzea eta bistaratzea; herrietako ekonomiaren suspertzaileak, tokian tokiko produktuen eta zerbitzuen bultzatzaileak, eta gizarte-harremanen sustatzaileak izanik, gizarte-kohesioa ahalbidetuz.
3. Bezeroak leial bihurtzen laguntzea, bezeroak bermatzeko eta mantentzeko pizgarriak eskaintzea ahalbidetzen dieten jardueren eta tresnen bitartez.
4. Tokian tokiko merkataritza-sektore lehiakorra suspertzeko gai diren elkarteak finkatzea sustatzea, xede den publikoa erakartzeko gai izanen direnak.

Proiektuaren jarduera-planak 3 ardatz ditu:

TOKIKO KONTSUMOA BULTZATZEKO SENTSIBILIZAZIOA	TOKIAN TOKIKO MERKATARITZA, LURRALDEAREN DINAMIZATZAILEA	“PARTEKATU, BERRITZEKO”: SEKTOREEN ARTEKO LANKIDETZA, EZAGUTZAK BESTERENTZEA

2014. urtean:

- Hurbileko merkataritzak Nafarroako Mendialdean zuen egoerari buruzko txostena idatzi zen, herrietako 143 denden ekarpenekin landua.
- Bost lantalde eratu ziren Nafarroako Mendialdeko 5 herritan, gizarte-taldek eta herritarrek osatuak: Doneztebe, Agoitz, Zangoza, Arbizu eta Zubirin (Esteribar). Bilera horietan, denetara, 39 lagunek hartu zuten parte (24 emakume eta 15 gizon).
- Baztan, Bera, Lesaka eta Doneztebeko dendarien eta zerbitzuen lau elkarteak batzen dituen Denok Bat Federazioarekin elkarlanean jardun genuen.
- Dendarien, kontsumo-taldeen, ekoizleen eta bestelako eragileen artean 3 topaketa antolatu ziren Agoitzen, Arbizun eta Donezteben, eta horietan 39 lagunek hartu zuten parte (25 emakume eta 15 gizon).
- "*Eman bizia Agoitzi. Kontsumitu Agoitzen*" kanpainari babesa eman genion. Herriko 31 establezimenduk eta 48 pertsonak (26 emakume eta 22 gizon) egin zuten bat kanpainarekin.
- Nafarroako mendialdean dauden kontsumo-ohiturei buruzko txosten bat landu zen, Elizondon (Baztan), Altsasun, Zangozan, Donezteben, Agoitzen eta Leitzan 300 pertsonari kalean egindako inkestetatik ateratako ondorioetatik abiatuta.

21. irudia. “Hurbileko landa-merkataritza” proiektuaren komunikazio kanpaina. Elkarrizketatutako herriko dendak

22. irudia. "Eman bizia Agoitzi. Kontsumitu Agoitzen", tokiko merkataritza sustatzeko kanpaina Agoitzen



23. irudia. "Hurbileko landa-merkataritza" izeneko proiektua. Ekintzen kokapena

24. irudia. "Ttipi-Ttapa" aldizkarian argitara emandako elkarrizketa. Edizio digitala

Ondoko taulak proiektuaren adierazle nagusiak jasotzen ditu, ardatz bakoitzari dagozkionak:

TOKIKO KONTSUMORANZKO SENTSIBILIZAZIOA	
Ekintza	**Adierazlea**
Hurbileko dendariei elkarrizketa	153
Hurbileko merkataritzak Nafarroako Mendialdean zuen egoerari buruzko txostena	1
Nafarroako Mendialdeko denden direktorioa	1
Lantaldeak	5 39 partaide (24 emakume eta 15 gizon)
Elkarrizketak herriko dendariei	5
Tokiko hedabideekin lankidetza	6

HURBILEKO MERKATARITZA, LURRALDEA SUSPERTZEKO BALIO SEGURUA	
Ekintza	**Adierazlea**
Dendarien, kontsumo-taldeen eta ekoizleen arteko topaketak	3 topaketa 39 partaide (24 emakume eta 15 gizon)
"*Eman bizia Agoitzi. Kontsumitu Agoitzen*" kanpaina	31 establezimendu atxiki ziren

PARTEKATU BERRITZEKO: SEKTOREEN ARTEKO LANKIDETZA ETA BERRIKUNTZA	
Inkestak kontsumo ohiturak ezagutzeko	300 inkesta 6 udalerri
Merkataritza sektorean jorratutako lankidetzari buruzko jarduera onak	15
Nafarroan diren kontsumo-ohiturei buruzko txostena	1
Landa-eremuetako merkataritza-sektorean jorratutako lankidetzaren inguruko jarduera onen txostena	1

12. taula. "Hurbileko landa-merkataritza" izeneko proiektuaren adierazleak.

MERKAT-ARI

Merkat-ari proiektuak tokiko ekonomiari bultzada emateko estrategia bat diseinatzea eta martxan paratzea proposatzen du, Nafarroako Mendialdean ekonomiaren hiru zutabetan elkarrekin jardunez: eskulangintza, merkataritza eta, zehazki, muga inguruko merkataritza, eta turismoa. Merkat-ari proiektuak bi urteko iraunaldia izan du, eta aurrekontua 25.148,35 € izan da, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzaturik, 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programaren bitartez.

ESKULANGINTZA
Zaindu beharreko baliabidea izanik, balioa eman eta sustatu eskulangintzak enplegua sortzeko duen gaitasuna.



MERKATARITZA
Tokian tokiko ekonomiaren eragile gisa, eta turismo-produktuen eta zerbitzuen bultzatzaile gisa.

TURISMOA
Tokian tokiko eskulangintzaren eta merkataritzaren balioak, bereizgarritasuna eta kalitatea transmitituz, eta turismo-baliabideak erakargarri gisa erabiliz bertako eskaintzaren berri emateko, eta bertan kontsumitzera bultzatzeko.

Proiektuaren barnean landutako ekitzen helburuak ziren:

1. Nafarroako Mendialdeko herritarrei eskulangintzako produktuak ezagutzera ematea eta horiek kontsumitzera bultzatzea.
2. Eskulangintzako ondarea, horri lotutako ogibideak eta horretan diharduten pertsonen jarduna berreskuratzea, balioa handitzea eta sustatzea.
3. Eskulangintza zabaltzea eta eskulangintzaren salmenta bultzatzea, turismora zuzendutako produktu berezi gisa, bai ohiko turismo-informazioko bideak baliatuta, bai mugako merkataritza baliatuta.
4. Eskulangintzako elkarte sektorialak eta merkatarien elkarteak sortzea sustatzea, elkarte horiek tokian tokiko ekonomian duten eragina eta jarduera indartze aldera.
5. Emakumeak merkataritza-sektorean eta eskulangintzakoan betetzen duen eginkizuna berreskuratzea eta nabarmentzea.

Proiektuak 3 fase izan ditu:

I. ESKULANGINTZAKO ETA MERKATARITZAKO SEKTOREEK NAFARROAKO MENDIALDEAN DUTEN EGOERAREN ANALISIA

- Egoeraren diagnostikoa bi sektore horietan.

II. SEKTOREAREKIN LOTURA IZANEN DUEN TURISMO-PRODUKTUA DISEINATU ETA SUSTATU

- Eskulangintzarekin lotura duen materiala identifikatu eta lortu.
- "Eskulangileen ibilbideak" diseinatu eta sustatu Nafarroako Mendialdean.

III. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK

2013an zehar, eskulangintzaren sektorearen diagnostikoa egiteko informazioa biltzen hasi ginen, eta eskulangintzaren 13 ibilbideko proposamena egin zen Nafarroako Mendialderako. 2014an, berriz, bi sektoreen diagnostikoak osatu ziren, eskulangintzarekin lotura duen materialaren inbentarioa osatu zen, hainbat animazio-ekintza proposatu ziren (horien artean Zangozako "*Quiero molarte*" artista-taldearekin izandako lankidetza), eta babes-plan bat deskribatu zen Nafarroako Mendialdean eskulangintza sustatze aldera; horren barnean, prestakuntza-ekintzak.

Proiektuaren amaieran:

- Eskulangintzako eta merkataritzako sektoreek Nafarroako Mendialdean duten egoerari buruzko diagnostikoa egin zen.
- Diagnostiko horrek 16 ogibidetan profesionalki eskulangintzan ziharduten 39 lagun identifikatu zituen.
- Halaber, 80 denda erregistratu ziren Nafarroako Mendialdeko 4 muga-eremutan: Baztan, Bera, Etxalar eta Luzaiden.
- Eskulangintzarekin lotura duen dokumentu-materialaren inbentarioa egin zen: 1.500 argazki, 40 bideo eta film, eta 30 erreferentzia bibliografiko.
- Eskulangintzaren 12 ibilbide proposatu ziren Nafarroako Mendialdean. Ibilbide horietan 16 ogibidetako 28 eskulangileri bisita egitea proposatu zen.
- Zangozako “Quiero Molarte” artista-taldearekin jardun genuen lankidetzan “Arte2” ekimena garatzen, 2014ko abuztuan.
- http://merkat-ari.blogspot.com.es bloga eman genuen argitara, proiektuaren eta emaitzen berri emate aldera.

- Topaketa bat egin zen Zangozan eskulangintzako profesionalekin eta mugako dendariekin, diagnostikoaren berri emateko, eta ekintza zehatzen inguruko proposamenak jasotzeko.
- Nafarroako Mendialdean eskulangintza sustatzeko laguntza-plan bat diseinatu zen.





4. grafikoa. Eskulangintzak Nafarroako Mendialdean duen egoeraren diagnostikoa. Eskulangintzako profesionalen erregistroa, sexuen arabera (ezkerretara) eta adinaren arabera (eskuinetara) banandurik.



25. irudia. Merkat-ari. Eskulangileen erregistroa (urdinez) eta mugako merkataritza (gorriz).

26. irudia. “Eskulangintzako ibilbideak”. Ibilbideen inguruko proposamena Zangozan. Puntu bakoitza Herriko eskulangile bati dagokio.

27. irudia. Lankidetza “Quiero Molarte” taldearekin. "Arte^2" ekimenaren erakusketa Zangozan. 2014ko abuztua.

28. irudia. "Quiero Molarte" taldearen presentzia Facebook-en. Argibide gehiagorako: https://www.facebook.com/QuieroMolarte

29. irudia. Merkat-ari proiektuko bloga: "http://merkat-ari.blogspot.com.es"

TURISMOA

Turismo-sektorea eta zerbitzuen sektorea Nafarroako Mendialdearen motor ekonomikoetako bat dira. Elkarteak 2012an egindako diagnostikoek erakutsi zuten urte hartan egindako kontratuen % 71 zerbitzu-sektorean egin zirela: 1.035 kontratu eta CNAEn izena emandako 199 enpresa. Horregatik, Cederna Garalur Elkarteak arreta berezia ematen dio Nafarroako Mendialdean bi sektore horiek finkatzeari, kalitatea izanik marka bereizlea. Elkartearen turismo-arlotik honako zerbitzuok ematen zaizkio sektoreari: kalitatearen inguruko zerbitzu espezializatuak (xedeko kalitate-plana eta kalitatearen Q-a); turismo-sektorera bideratutako prestakuntza; enpresei eta erakunde publikoei arreta eta aholkularitza; Nafarroako Mendialdeko turismo-baliabideak kapitalizatuko dituzten proiektuak martxan jartzea. Hori guztia "Nafarroako Mendialdea" turismo-mahaiaren bitartez koordinatzen da.



4. irudia. "Nafarroako Mendialdea" turismo-mahaia eta Cederna Garalur Elkartearen turismo-zerbitzuak.

"Nafarroako Mendialdea" turismo-xedearen kalitate-plana eta kalitate-sistemak

Kalitate-plana, teknikoki SICTED gisa ezagutzen dena (*xedeko turismo kalitaterako sistema integrala*), Estatuko turismo Idazkaritzak eta **Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak (FEMP)** sustatutako programa da, "Nafarroako Mendialdea" deritzon turismo-xedearen kalitatea hobetzera bideratua. Hogeita hamaika ogibidetako enpresarekin eta turismo-zerbitzurekin egiten du lan, gure lurraldera bisitan etorriko diren turisten esperientzia eta gogobetetasun-maila hobetzea helburu hartuta.

Beste hainbat tresnaren artean, jarduera onen 31 eskuliburu ditu, ogibide bakoitzeko bat. Cederna Garalur Elkarteak honako hauek eskaintzen dizkie programara atxikita dauden turismo-sektoreko enpresei: prestakuntza-programa bat, aholkularitza homologatuko laguntza teknikorako bisitak, tailer kolektiboak, xedea hobetzeko proposamenak garatzen dituzten lantaldeak, eta enpresa/zerbitzua kalitate-estandarrekin bat datorrela egiaztatzen duten ebaluazioak. Horren guztiaren ondoren, turismo-kalitatearekiko konpromisoaren ziurtagiria jasotzen dute.

Compromiso de Calidad Turística | Kompromisoa Kalitate Turistikoarekin

Zerbitzua doakoa da turismo-establezimenduentzat. Nafarroako Gobernuak % 70 finantzatzen du Kultura, Turismo eta Instituzioekiko Harremanetarako Departamentuaren bitartez, eta Cederna Garalur Elkarteak % 30.

2014. urtean:

- Hiru sentsibilizazio-ekintza antolatu ziren Larraintzarren, Izaban eta Otsagabian. Horietan 23 establezimenduk hartu zuten parte.
- Bi lantalde eratu ziren Erronkarin eta Zaraitzun.
- 80 laguntza tekniko baino gehiago eman ziren.
- Nafarroako Mendialdeko 70 establezimenduk turismo-kalitatearekiko konpromisoaren ziurtagiria jaso zuten. Horietatik, 11 establezimenduk lehenengoz jaso zuten ziurtagiria, eta 59k berritu egin zuten.

- 70 turismo-establezimenduk osatu zuten SICTEDen prestakuntza-programa.
- 17 prestakuntza-modulu eman ziren.
- 53 turismo-establezimendu bertatik bertara ebaluatu ziren.

	Jarduera Onen Eskuliburuak				Q kalitatea
	Atxikipen berriak	Jarraipena	Berritzea	GUZTIRA	
Baztan - Urdazubi -Zugarramurdi		7	11	18	1
Malerreka-Bertizarana-Bortziriak		1	8	9	3
Pirinioaurreko arroak	1	3	2	6	2
Esteribar - Erroibar - Aezkoa		1	1	2	
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	1	4	12	17	8
Sakana	2	2		4	3
Zangoza	1	2		3	1
Erronkari - Zaraitzu	6	1	3	10	1
Beste batzuk		1		1	
GUZTIRA	***11***	***22***	***37***	***70***	***19***

13. taula. Xedeko Kalitate Plana: "Turismo Kalitatearekiko Konpromisoa" deritzan ziurtagiria eta/edo turismo-kalitaterako Q-a duten establezimenduak. Garapen-agentzien araberako emaitzak.



5. grafikoa. Jarduera Onen Eskuliburuak garapen-agentziaren arabera

5. irudia. Establezimenduetan jarduera onen eskuliburuak ezartzeko prozesua, eta turismo-kalitatearekiko konpromisoaren ziurtagiria.

Espainiako turismo kalitaterako sistema, Q ziurtagiria, zabaltzeko laguntza teknikoa

Espainiako Turismo Kalitaterako Institutua (ICTE) kalitate-sistemak egiaztatzeko entitatea da, turismo-arloko enpresetarako sortua. Jarduera onen eskuliburuen kasuan bezalaxe, Q kalitatearen ziurtagiriak urtero ikuskapen bat egitea eskatzen du, nahiz eta lehenengoan ez bezala, zerbitzua ordaindu behar izaten den; turismo-enpresek Turismo Kalitaterako Sistemara (Q ziurtagiria) atxikitzeko kostuak ordaindu behar dituzte, baita marka erabiltzeko eskubideak, ikuskapen-kostuak eta laguntza teknikoa ere.

Cederna Garalur Elkartearen turismo-arloak, ICTEk Nafarroan duen ordezkaria den aldetik, honako eginkizun hauek betetzen ditu:

- Turismo-kalitatearen Q ziurtagiriari buruzko sentsibilizazio- eta zabalpen-ekintzak lurraldean.
- Ziurtagiria lortzen interesa duten turismo-zerbitzuei eta -establezimenduei bideratutako aholkularitza eta laguntza teknikoa.
- Ziurtagiria jaso duten enpresei aholkularitza eta jarraipena, ikuskaritzei, laguntzei eta zuzenketa-planei dagokienez.

2014. urtean:

- Nafarroako Mendialdeko 15 establezimenduk jaso zuten lehenengoz edo berritu zuten kalitatearen Q ziurtagiria.
- Hiru establezimendu berri atxiki ziren, eta 2015ean berritzeko prestatzen ari dira.



30. irudia. Nafarroako Mendialdean kalitatearen Q ziurtagiria eta/edo jarduera onen eskuliburuak dituzten turismo-establezimenduak Google Earth-ekin ikusita. Eskuragarri "www.cederna.eu/servicios/turismo" helbidean.

"Nafarroako Mendialdea" kalitate-mahaia

Nafarroako Mendialdeko Turismo Kalitaterako Batzordea Nafarroako Mendialdeko ekonomia-sektore eta zerbitzu publiko guztiek xedeko kalitate-plana kudeatzen eta, turismo-kalitatearekin lotuta, sektoreari eraginen dion edozein jardueratan parte hartzea eta lankidetzan jardutea ahalbidetzen duen organoa da. Turismo Kalitaterako Mahaia da, zehazki, Nafarroako Mendialdeko Turismo Kalitaterako Batzordearen organo erabakitzailea.

Cederna Garalur Elkarteak koordinatzen du turismo-kalitaterako mahaia. Honako hauek hartzen dute parte mahaian: Nafarroako Gobernuak, Kultura, Turismo eta Instituzioekiko Harremanetarako Departamentuaren bitartez; Nafarroako Mendialdeko erakunde publikoek; ibarretako batzarrek; Nafarroako Landa Hotelen Elkarteak, eta Bertizko eta Plazaolako Turismo Partzuergoek.

2014an, kalitate-mahaia bitan batzartu zen, maiatzean eta azaroan. Bi bilera horietan, jarduera onen eskuliburuak ebaluatzeko 70 txosten aurkeztu eta onartu ziren; 23 maiatzekoan, eta 47 azarokoan. Horrez gain, kalitate-mahaiko kideek erabaki dute turismo-sektorean eta turisten artean turismo-kalitatearekiko konpromisoaren

ziurtagiria indartzea, kalitatearen ziurtagiria den aldetik. Horretarako, honako neurriak proposatu dituzte, besteak beste:

- Sentsibilizazio-kanpainak programatzea turismo-arloko elkarteekin, bereziki Jarduera Onen Eskuliburuak gutxien ezarrita dauzkaten eskualdeetan.
- Balorazio gehigarri gisa sartzea jarduera onen eskuliburuak ezarrita edukitzea "Nafarroako Mendialdea" LGP (LEADERen 4. ardatza) programak laguntzak emateko irizpideetan.
- Tokiko eta eskualdeko hedabideen bitartez zabaldu eta sustatu turismo-kalitatearekiko konpromisoa erakutsi duten establezimenduei diplomak banatzeko zeremonia.
- Nafarroako Gobernuak bere aldetik, bereizgarria jaso duten establezimenduen fitxetan SICTEDen logotipoa jartzea Nafarroako Gobernuaren Turismo Departamentuaren web-orri ofizialean: http://www.turismo.navarra.es/.
- Nafarroako Gobernuak turismorako eta landa-garapenerako deitutako laguntzetan, Jarduera Onen Eskuliburua ezarri izana baloratzea, kalitatearen Qarekin egiten den modu berean.
- Turismo-bulegoei jarduera onen eskuliburuak ezar ditzatela proposatzea, haien eskualdeetako turismo-sektorearen erakusgarri izan daitezen.
- Jarduera Onen Eskuliburuaren sistema ezartzea gaur gero kalitatearen Qa duten Nafarroako Gobernuaren baliabideetan; Bertizko Jaurerriko Parkean, kasu.

31. irudia. Urdazubiko leizeak barrendik. Leizeak xedeko turismo-kalitatearen bereizgarria dauka. Iturria: http://cuevasurdax.com/eu/

32. irudia. Turismo-kalitatearekiko konpromisoaren diplomen banaketa, 2014. Oibar. 2015eko martxoa

Aholkularitza orokorra turismo-establezimenduei

Turismo-kalitateko zigiluak lortzeko aholkularitza-ekintzez gain, prestakuntzaz nahiz proiektuak garatzeaz gain, elkartearen turismo-arloak Nafarroako Mendialdeko enpresen eta turismo-sustatzaileen kontsultei erantzuten die. Bide horretan, 3 lan-ildo daude:

- Aholkularitza proiektuak garatzeko: proiektuak dinamizatzeko laguntza, informazio orokorra ematea, enpresa- eta bideragarritasun-planak, lineako posizionamendua.
- Finantzaketa bilatzea.
- Izapideak erraztea.

CYBERSUDOE'INNOV

2009an, "SUDOE" eremuko bederatzi erakunde elkartea eratu zuten ETEetan eta MikroETEetan IKTBak zabaltzeko Cybersudoe sarea eratze aldera. Eginkizun horretarako, sentsibilizazio-jardunaldiak antolatu, eta teknologia berriek enpresen antolakuntzan eta produkzioan zenbateko presentzia zuten ebaluatzeko diagnostikoak landu zituzten.

2013an, sareak erabaki zuen onartuak zituen neurriak enpresetan teknologia berrien bitartez kultura berritzailerantz orientatzea. Horretarako, "Cybersudoe'Innov" izeneko proiektua jarri zuten martxan. Proiektuak aurrekora elkartutako erakunde bertsuak ditu, zazpi denetara, Espainiakoak, Frantziakoak eta Portugalgoak. Proiektuaren aurrekontu globala 700.000 € pasatxo da, eta zenbateko horretatik 100.000 € Cederna Garalur Elkarteari dagozkio. Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) % 70 finantzatzen du proiektua, Interreg IVB SUDOE programaren bitartez.

Cybersudoe'Innov programa Europako hego-mendebaldeko mikroenpresetara eta enpresa txikietara dago bideratuta, eta helburu nagusiak ditu:

1. Europa mailan (eta zehazkiago, proiektuko bazkideen lurralde-esparruan) berrikuntzan eta IKTetan adituak direnen sare bat antolatzea.
2. Zaintza teknologikoko tresna bat ezartzea, enpresa txiki eta ertainei eta mikroenpresa txiki eta ertainei bideratutako berrikuntza teknologikoan oinarrituta.
3. IKTen arloan proiektu berritzaileak martxan jarri nahi dituzten enpresak identifikatzea, eta enpresa horiei lagun egitea soluzio horiek martxan jar ditzaten, adituen aholkularitzaren babespean.

Proiektua, nagusiki, enpresa txiki eta ertainetara (ETEak eta mikroETEak) bideratuta dago, baita, ordez, Europako hego-mendebaldeko profesionalen datu-base baten bitartez proiektuan parte hartu nahi duten eta berrikuntzan eta teknologia berrietan

adituak diren pertsonei, eta profesional horiek beren baitan hartzen dituzten elkarteetara eta enpresa-taldeetara nahiz enpresa txikiei eta unibertsitateei laguntza ematen dieten sareetara ere.

Gaingiroki, Cederna Garalur Elkartearen asmoa da teknologia berrien eta berrikuntzaren arloan adituak diren 80 pertsona erregistratzea, eta 12 proiektu berritzaile finantzatzea beste horrenbeste enpresatan, Nafarroako Mendialdeko enpresa txiki eta ertainetan teknologia berriak baliatuz berrikuntzaren inguruan burututako 45 diagnostiko egin ondoren aukeratuak. Proiektu horietako bat Europako berrikuntzaren inguruko lehiaketan parte hartzeko aukeratuko da.

Tamalez, 2014an, proiektuak hainbat gorabehera izan zituen, eta horien ondorioz, ekintzak 2015era atzeratu dira. Hala ere, 2014an Cederna Garalur Elkarteak:

- "Telefonia Internet-VOIP" gaiari buruzko berrikuntza-jardunaldi bat antolatu zuen Lesakako Alkaiaga industrialdean duen zerbitzu-zentroan. Hamahiru lagunek hartu zuten parte.
- "Javyser" enpresaren laguntza teknikoa kontratatu zen Nafarroako Mendialdean eta Foru Erkidegoan berrikuntzaren eta IKTren arloan dauden adituen inbentarioa egiteko, eta 5 sentsibilizazio-jardunaldi antolatzeko.
- 2014ko urtarrilean Auch-en (Frantzia), ekainean Gijónen proiektuaren inguruan antolatutako koordinazio-bileretan parte hartu genuen.

33. irudia. “VOIP”-ri buruzko jardunaldia Alkaiagan (Lesaka)

- Bost sentsibilizazio-jardunaldi berrikuntza-gaietan.
- Berrikuntzaren eta IKTen arloan adituak diren 80 pertsona identifikatu eta erregistratu.
- Berrikuntzari buruzko 45 diagnostiko enpresa txiki eta ertainei.
- 12 akonpainamendu teknologiko.
- Enpresa bat hautagai Europako berrikuntza-lehiaketarako.

6. irudia. Cybersudoe'Innov proiektua. Proiektuaren adierazleen koadroa.

34. irudia. Cybersudoe'Innov proiektuko berripaperaren goiburua

LANIN-G: TOKIKO GOBERNANTZARAKO EREDU BERRIAK, HERRITARREN PARTE-HARTZEA OINARRI DUTENAK

Proiektu horren bitartez, Cederna Garalur Elkarteak herritarren parte-hartze handiagoa edukiko duen gobernantza-eredu berria proposatzen du, herri-erakundeei, enpresei, herritarren elkarteei eta partikularrei zabalik egonen diren lantaldeetan parte hartuz. Horiek baliagarriak izan beharko lukete epe luzera tokiko garapen-ildo estrategiko berriak proposatzeko, baita landa-eremuetan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea eta enplegua hobetzera bideratutako proposamenak eta ekintzak proposatzeko ere. Proiektuak bi urtez iraun du, eta 2014ko abenduan amaitu zen.



Proiektuaren berariazko helburuen artean ditugu:

1. Nafarroako Mendialdeko eskualdeetan lurraldea kudeatzeko eta horren gobernantza egiteko lan-metodologia berri bat ezartzea eta finkatzea, lurraldeko eragileen, hau da toki-erakundeen, enpresen nahiz herritarren arteko eztabaidara zabalik egonen den, eta pertsonen eta erakundeen artean eztabaida eta feedbacka sustatuko duen metodologia, epe motz, luze eta ertainerako ekintzen inguruko proposamenak aberaste aldera.
2. Generoaren ikuspegia txertatzea definituko diren ekintzetan.
3. Nafarroako Mendialdean, herri- nahiz eskualde-mailan garapen parte-hartzaileko dinamika berriak martxan jartzea, Europa 2020 estrategiarekin bat etorriko diren epe luzerako helburuak eta lehentasunak definituko dituena, landa-eremuek pairatzen duen ekonomia-krisiari aurre egite aldera.

LANIN-G proiektuak 48.000 €-ko aurrekontua izan du, eta Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren finantzaketa eduki du, 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programako LEADERen 4. ardatzaren bitartez.

LANIN-G metodologiak 4 lan-etapa edo -fase izan ditu:



Antzeko ekimenekiko LANIN-G proiektuaren berrikuntzetako bat da lan-prozesua aldi berean bultzatu izana Nafarroako Mendialde osoan (ia 5.000 km^2-ko azalera eta 80.000 biztanle). Horrek zailtasunak areagotu egin ditu lurraldearen hedaduragatik eta lantaldean parte har zezakeen erakunde-, elkarte- eta pertsona-kopuruagatik. Hortaz, lehenengo urratsa prozesua martxan paratzeko eska txikiagoa zehaztea izan zen; azpieskualdeak definitzea, hain zuzen ere, eta prozesuan parte hartzen interesa izan zezaketen taldeak identifikatu genituen. Horrela, 2013an, eskualde-mailako 7 lantalde definitu genituen, eskualde bakoitzerako interesekoak ziren estrategiak definituko zituzten lehenengo lan-saioak egin genituen, eta prozesuan parte hartzera gonbidatuko genituen eragileen zerrendak berrikusi genituen; hori guztia, bileretan parte hartu zuten pertsonen ekarpenekin.

2014an, eskualde bakoitzerako lan-prozesua bukatu genuen, eta, kasu horretan, epe motz, ertain eta luzera burutu beharreko ekintza zehatzak aipatu genituen, lehentasunak ezarri eta lanen ardura hartuko zuten pertsonak proposatu genituen. Halaber, Nafarroako Mendialderako bi lantalde sektorial ireki jarri genituen martxan: horietako bat natura-eremuak turismoaren ikuspuntutik kudeatzera bideratua, eta bestea, berriz, mikologia lantzera.

Aldi berean, zabalpen-kanpaina bat paratu genuen martxan, proiektuaren garapenaren eta emaitzen berri emateko, eta, halaber, LANIN-G proiektuaren ondorioak eta txostenak jasotzen dituen webgune bat gaitu genuen.

35. irudia. 'LANIN-G' proiektua. Natura-eremuak turismoaren ikuspuntutik kudeatzeari buruzko lantaldearen bilera.

Proiektuaren amaieran:

- Eskualde-mailako 9 lantalde eratu ziren: Baztan-Bidasoa, Pirinioaurreko arroak, Esteribar-Erroibar-Aezkoa, Mendialdea-Leitzaran-Ultzama, Erronkari-Zaraitzu, Sakana, Zangoza.
- Lurraldean, guztira, 252 eragile identifikatu genituen: toki-erakundeak, enpresak, enpresaburuen elkarteak eta erakunde sektorialak, kontsumo-taldeak, herritarren elkarteak eta partikularrak.
- Denetara 37 bilera egin genituen, eta horietan 459 lagunek hartu zuten parte; 132 emakume eta 327 gizon.
- Guztira 264 proposamen landu genituen, eta 49ri epe motz eta ertainerako lehentasuna eman genien.
- Nafarroako Mendialderako bi lantalde sektorial sortu genituen: “mikologiaren mahai sektoriala” eta “natura-eremuak turismoaren ikuspuntutik kudeatzeko mahai sektoriala”.
- Lantalde sektorialek 3na bilera egin zituzten, eta horietan, batez beste, 24 lagunek hartu zuten parte.
- Hiru txosten landu genituen: bat, eskualdeko lan-prozesuari buruzkoa, eta beste biak, berriz, mahai sektorialetan ateratako ondorioei buruzkoak.
- Hamabi prentsa-ohar eman dira argitara tokiko hedabideetan eta eskualde-mailakoetan.
- LANIN-G proiektuaren ondorioak jasotzen dituen webgune bat garatu genuen. Webgune hori eskuragarri dago Cederna Garalur Elkartearen web-orrian

(www.cederna.eu). 2014ko urriaren amaiera bitartean 1.647 bisita jaso zituen; 1.264 gaztelaniazkoan, eta 383 euskarazkoan.

Lantaldea	Identifikatutako arlo estrategikoa
Baztan - Bidasoa (I)	Lehen sektorea, nekazaritzako elikagaiena eta baso-sektorea
Baztan-Bidasoa (II)	Enpresa-ekimena eta enplegua
Baztan-Bidasoa (III)	Turismoa, ondarea, merkataritza eta zerbitzuak
Pirinioaurreko arroak	Landa-garapenerako estrategiak: Iratiren natura-bidea
Esteribar-Erroibar-Aezkoa	Toki-garapenerako estrategiak
Mendialdea-Leitzaran-Ultzama	Toki-garapenerako estrategiak
Erronkari - Zaraitzu	Lehen sektorea eta baso-sektorea
Sakana	Landa-garapenerako estrategiak: Sakanako Garapen Agentzia
Zangoza	Turismoa, ondarea, merkataritza eta zerbitzuak
Sektoriala. Nafarroako Mendialdea	Mikologia
Sektoriala. Nafarroako Mendialdea	Nafarroako Mendialdeko natura-eremuen kudeaketa turismoaren ikuspuntutik

14. taula. 'LANIN-G' proiektua. Eskualdeko lantaldeak eta aukeratutako arlo estrategikokak

Baztan-Bidasoa	Pirinioaurreko arroak	Esteribar-Erroibar-Aezkoa	Mendialdea Leitzaran Ultzama	Erronkari - Zaraitzu	Sakana	Zangoza	GUZTIRA
7 (*)	5	6	5	4	5	5	37

15. taula. Eskualdeka burututako bilerak. Baztan-Bidasoari dagokionez, lan-prozesuko bigarren fasean hiru bilera paralelo egin ziren, identifikatutako hiru arlo estrategikoko bana.

16. taula. Eskualdeko lantaldeak. Lurraldeka identifikatutako eragileak.

Baztan-Bidasoa	Pirinioaurreko arroak	Esteribar-Erroibar-Aezkoa	Mendialdea Leitzaran Ultzama	Erronkari - Zaraitzu	Sakana	Zangoza	GUZTIRA
56	36	35	46	16	19	44	252



6. grafikoa. LANIN-G proiektuan identifikatutako eragileak

17. taula. Bileretan parte hartu zutenak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Baztan-Bidasoa	68	23	*91*
Pirinioaurreko arroak	40	18	*58*
Esteribar-Erroibar-Aezkoa	66	28	*94*
Mendialdea-Leitzaran-Ultzama	50	19	*69*
Erronkari - Zaraitzu	30	2	*32*
Sakana	43	11	*54*
Zangoza	30	31	*61*
GUZTIRA	***327***	***132***	***459***



7. grafikoa. Lantaldeen bileretan izandako parte-hartzea guztira.

36. irudia. Esteribar - Erroibar - Aezkoako lantaldearen bilera.

18. taula. "Nafarroako Mendialdeko natura-eremuen kudeaketa turismoaren ikuspuntutik" izeneko mahai sektoriala. Bileren koadro orokorra

		Bertaratuak		
Data	**Herria**	**Gizonak**	**Emakumeak**	***GUZTIRA***
2014/07/31	Oronoz-Mugairi (Baztan)	16	9	***24***
2014/09/11	Ilunberri	10	11	***21***
2014/10/02	Lekunberri	20	9	***29***
GUZTIRA		***46***	***29***	***75***

19. taula. "Mikologia" izeneko mahai sektoriala. Bileren koadro orokorra

		Bertaratuak		
Data	**Herria**	**Gizonak**	**Emakumeak**	***GUZTIRA***
2014/07/02	Larraintzar (Ultzama)	27	8	***35***
2014/08/27	Aribe	13	4	***17***
2014/09/13	Agoitz	13	2	***15***
GUZTIRA		***53***	***14***	***67***



8. grafikoa.Lan-mahai sektorialak. Parte hartu zuten gizonen eta emakumeen arteko alderaketa.

37. irudia. Webgunea. Helbide honetan erabilgarri: http://laning2014.blogspot.com.es/

EUROPARI BURUZKO INFORMAZIO ZERBITZUA, 'EUROPE DIRECT' GUNEA

Cederna Garalur Elkartearen Europari buruzko informazioa ematen duen Europe Direct gunea Europako Batzordeko Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren "Europe Direct Sarea" izenekoaren partaidea da. Sarea Europa osoan barrena kokatuta dauden 480 gunek, gutxi gorabehera, osatzen dute. Zentro horien eginkizuna da Europar Batasuna eta horren instituzioak Europako herritarrei hurbiltzea, Europar Batasunari, bere jarduerei eta programei buruzko informazioa zabalduz eta emanez.

Sare horren partaide izanik, Nafarroako Mendialdean Cederna Garalur Elkartearen 'Europe Direct' informazio-zentroaren helburuak dira:

- Toki-erakundeei eta partikularrei Europar Batasuneko legeriari, politikei, programei eta finantza-laguntza jasotzeko aukerei buruzko informazioa ematea.
- Europako gaien eta landa-garapenaren inguruan esperientziak eta hausnarketak trukatzeko topaguneak antolatzea.
- Aktiboki lan egitea Europako beste informazio-zentroekin eta europar izaera duten beste erakundeekin, Europako proiektuak martxan jartzen bazkideak bilatzeko sareak ezartze aldera.

Sareko kidea den Cederna Garalur Elkartearen Europe Direct Europako informazio-zentroak honako erakunde eta elkarteekin dihardu lankidetzan:

- Europako Batzordearen Komunikazio Zuzendaritza Nagusia: Europako Europe Direct guneen Sarea
- Europako Batzordeak eta Parlamentuak Espainian duten ordezkaritza.
- UrdimbrED: Europari buruzko informazio-zentroen elkartea landa-eremuetarako. Europari buruzko informazioa ematen duten sei gunek osatzen dute, bestelako tokiko ekintza-taldeetan edo antzekoetan integraturik.

- Estatuko Landa Sarea, UrdimbrED-ek egiten duen jarraipenerako batzordeko kide gisa.

Gaur egun, Cederna Garalur Elkartearen 'Europe Direct' gunea Nafarroan halako egitura duen bakarra da. Horregatik, zentroak ematen dituen zerbitzuak Nafarroako Mendialdetik hareago doaz. Harpidedun ugariri bidaltzen die informazio-agerkaria, eta azoketan eta topaketetan hartzen du parte.

Zerbitzuak Europako Batzordearen baterako finantzaketa dauka (% 60), eta lankidetza-hitzarmena urtero berritzen da. 2014rako, aurrekontu globala 34.200 € izan da.

2014. urtean Europako Parlamenturako hauteskundeak izan ziren, maiatzaren 24an. Gure guneak, Europari buruzko informazioa emateari dagokionez, Europako hauteskundeei buruzko publizitatea egin zuen. Bi aldizkari berezi eman zituen argitara (gaztelaniaz eta euskaraz) urtarrilean eta otsailean, Europako instituzioei, Europako alderdi politikoei eta Europako Parlamentuari eta horren eginkizunei buruzkoak.

38. irudia. Europako Parlamenturako hauteskundeak, 2014. Ezkerretara, hauteskundeei buruzko 2014ko urtarrileko aldizkari berezia, euskaraz. Eskuinetara, Europako Parlamentuaren banner ofiziala, euskaraz.

Halaber, 2014an Europar Batasunaren 2014-2020 aldirako programazio berria jarri zen martxan, eta horrekin programa operatibo aunitz: Horizonte 2020, Erasmus+, COSME, Life+…Europari buruzko informazio-zentroak Nafarroan proiektu horien inguruan egindako aurkezpen-jardunaldietan parte hartu zuen, eta Nafarroako Mendialdeko toki-erakundeetatik egin zitzaizkigun galderei erantzun genien.

Halaber, 2014an, parte-hartze aktiboa izan genuen Europako Parlamentuak Espainian duen informazio-bulegoak antolatu zuen 'Euroscola' lehiaketa zabaltzen. Lehiaketa 14 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat zen, eta helburua zuen Europako Parlamentuaren eta Instituzioen jarduera eskola-adinean dauden gazteei hurbiltzea hainbat ekintzaren

bitartez; besteak beste, bideoak, blogak eta bestelakoak landuz. 2014an, Nafarroako 4 herritako 6 ikastetxe aurkeztu ziren lehiaketara. Cederna Garalur Elkartearen Europe Direct zerbitzuak kanpaina hori aurrera eramaten lagundu zuen, parte hartu zuten taldeekin lankidetzan, egindako kontsultei erantzunda, informazioa jasotzeko helbideak emanda, eta Europari buruzko materiala banatuta.

39. irudia. Europar Batasunaren "Europaren aldeko 19 aurpegi" izeneko kanpaina. Eskualdeko hedabideetan argitara emandako bannerra. Ergian, Nafarroako ordezkaria.

Horrez gain, 2014an:

- Bruselan (Belgika), uztailaren 10ean eta 11n, antolatu zuten prestakuntza-mintegian parte hartu genuen. Espainian Europari buruzko informazioa ematen duten hainbat saretako ordezkariak egon ziren mintegian (informazio-guneak, "Eures", 'Solvit', 'Eurodesk' sareak) Europar Batasuneko zuzendaritza orokorretako adituekin batera, Batasunaren hainbat programa aztertze aldera.
- Europari buruzko informazio-guneek Bonn-en (Alemania) urrian egin zuten batzar nagusian parte hartu genuen.
- Espainiak, Frantziak eta Andorrak 2014-2020 aldirako martxan jarri duten mugaz gaindiko lankidetza-programa (Interreg VA "POCTEFA") abian paratzeko ekitaldian parte hartu genuen.
- Bi aldizkari berezi editatu eta bidali genituen posta elektronikoz; Europar Batasunari, Batasuneko instituzioei eta Europako Parlamenturako hauteskundeei buruzkoak (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Tokian tokiko, eskualdeko eta Europako laguntzei buruzko 18 aldizkari editatu eta bidali genituen. Aldizkariek NAOk, BOEk eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialak (EBAO) argitaratutako informazioa jasotzen zuten.
- Informazio-aldizkariak 900 harpidedunek baino gehiagok jaso zituzten; horien artean, toki-erakundeek (udalak), Nafarroako Gobernuko Departamentuek, enpresek eta enpresaburuen elkarteek, gizarte-erakundeek eta ikastetxeek.
- Europako programei buruzko eskuliburu bat eman genuen argitara. Eskuragarri dago informazio-zentroaren www.cederna.eu/europa webgunean.

- UrdimbRED sarearekin lankidetzan, landa-eremuetan garatutako proiektuen 20 jarduera on jasotzen dituen CDa editatu genuen, Europako hainbat funtsek finantzaturik: landa-garapenerako Europako funtsak (LEADER programa), lurraldeen arteko lankidetzarako programek (Interreg), eta gazteria ekinean, besteak beste. CDaren edukia www.cederna.eu/europa/urdimbred2014 helbidean dago ikusgai.
- 211 kontsultari egin zitzaien arreta.

40. irudia. Prestakuntza-mintegia Bruselan (Belgika). 2014ko uztaila

41. irudia. UrdimbRED-ek editatu zuen "Europarekin zubiak eraikitzen: Europako funtsak landa-eremuan, 2007-2013 aldian" izenburua duen CDaren azala.

Proiektuak gaika	Natura-ondarea, ingurumena	9
	Nekazaritzako elikagaiak	6
	Kultura-ondarea eta turismoa	6
	Enpresak eta enplegua	5
	Herritarrak	9

Proiektuak finantzaketa-iturrien arabera	LEADER proiektua	13
	Lurraldeen arteko lankidetza	5
	Eko-berrikuntza	1
	Gazteria	1
	GRUNDTVIG	1
	MED programa	1
	LIFE	2

UrdimbREd-en CDa, Europako funtsak landa-eremuan behar bezala aplikatzearen inguruko jarduera onei buruzkoa. Proiektu-kopurua interes arloaren arabera (oharra: proiektu batek hainbat arlo hart ditzake).



9. grafikoa. Cederna Garalur Elkartearen Europe Direct gunea. Erantzundako kontsulten ehunekoa, hedabideka banaturik

ENPRESEI ARRETA EGITEKO, EKINTZAILETZARAKO
ETA PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZUA

SARRERA

Gure elkartearentzat, jarduera hasi zuenetik beretik, ildo estrategikorik garrantzitsuenetako bat lurraldean ekintzailetzari eta enpresa berriak finkatzeari babesa ematea izan da, negozio propio berri bati heltzea betidanik izan baita landa-eremuan lan-mundura heltzeko eta bertan jarraitzeko aukera gutxienetako bat.

Bi jardueraren inguruan gauzatzen da Cederna Garalur Elkartearen sostengu hori:

- Negozio-ideia bat edo enpresa berri bat sortzen eta martxan jartzen denean ematen duen aholkularitzan.
- Dagoeneko martxan diren enpresak finkatzen, enplegua suntsitzea saiheste aldera, jarduera dibertsifikatuz, eta berrikuntza, bikaintasuna, kalitatea eta prestakuntza bultzatuz.

Cederna Garalur Elkarteak duen esperientziaren bitartez, elkarteak ekintzailetza laguntzeko metodologia garatu du; hainbat ibilbide pertsonalizaturen bitartez pertsonei erabakiak hartzen laguntzen die orientabideak emanez, haien negozio-ideiek lan-merkatuan aukerak izan ditzaten. Prozedura hori, funtsean, bost fasetan banaturik dago, kasu bakoitzera egokituta:



7. irudia. Cederna Garalur Elkartea. Ekintzailetzan laguntzeko prozedura

Metodologia horren helburuak dira:

1. "Enpresa-kultura" sustatzea, negozio-hobi eta enplegu-aukera berriak identifikatzen lagunduko duten jarrera ekintzaileak garatzea, eta aukera horiek baliatzen ikastea.
2. Enpresa-jarduera berri bati heltzeko beharrezkoak diren abileziak eta gaitasunak identifikatzea.
3. Ekintzaileari lagun egitea negozio-ideia orrazteko eta sortzeko prozesuan, bideragarritasun-planean, baimenak bideratzen, eta diru-laguntzak eskatzen.
4. Sortutako enpresen jarraipena egitea, eta negozioa finkatzen eta hazten lagundu.

Helburu horiek Cederna Garalur Elkarteak 2014an garatu zituen berariazko hiru jardueratan gauzatu dira:



8. irudia. Arreta enpresentzat eta ekintzaileentzat. Horiei loturiko jarduerak eta proiektuak

ERNE PROIEKTUA: “IDEIATIK MERKATURA”

Ekintzailetzarako ematen den babesaren lehenengo zutabea, hain zuzen ere, Nafarroako Mendialdeko herritarren artean "kultura ekintzailea" sustatzea da; alegia, merkatu-hobi berrietan negozio-aukerak identifikatzearen aldeko interesa piztea, enpresa finantzatzeko formula berritzaileak ezagututa, eta enpresen eta/edo ekintzaileen arteko lankidetza sustatuz. Zehazki, ERNE proiektuaren helburuak dira:

1. Gaur egun LH eta Batxilergoa ikasten ari diren tokian tokiko gazteen artean (16 eta 25 urte bitartean) enpresa-kulturaren balioak sustatzea.
2. Nafarroako Mendialdeko ekintzaileak izan daitezkeenei enpresa finantzatzeko formula berritzaileak hurbildu: mikrokredituak, crowfunding, "business angels" sareak…
3. Ekintzaileen eta gaur gero merkatuan dauden enpresen artean lankidetzarako bideak eta aukerak ezarri.
4. Negozio berriak martxan jartzen lagundu.

ERNE proiektua 2013. eta 2014. urteetan garatu da, eta Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren finantzaketa jaso du "Nafarroako Mendialdea" LGP 2007-2013 landa-garapenerako programaren bidez. Aurrekontua 52.000€ € izan da.

42. irudia. Jardunaldiak ikastetxeetan. Altsasu

Proiektua hiru fasetan dago banatuta:

I. FASEA SENTSIBILIZAZIOA "*ETORKIZUNEKO IDEIAK*"	• Topaketak gazte ekintzaileekin • Tailerrak ikastetxeetan, "geroa asmatzen"
2. FASEA EKINTZAILETZAREN KOMUNITATEA "*IDEIATIK EKINTZARA*"	• Proiektu-ideiak identifikatu eta aukeratu • Proiektuak eraiki eta bizkortu
3. FASEA EKINTZAILEA IZATEKO TRESNAK	• Gaitzea (gizarte-ekonomia, *coaching*, proiektuak bizkortu) • Proiektuak finantzatzeko formulak

ERNE bereziki gaur egun lanbide-heziketa edo batxilergoa ikasten ari diren, eta urte gutxi barru Nafarroako Mendialdeko ekintzaile bihurtuko diren 16 eta 25 urte bitarteko gazteei bideratuta dago. Hori dela-eta, 2014an zehar, Cederna Garalur Elkarteak areagotu egin du Nafarroako bigarren hezkuntzako ikastetxeekiko lankidetza, hitzaldiak emanez, eta tokian tokiko enpresekin animazio-ekintzak burutuz. Horrez gain, Cederna Garalur Elkartea beste hainbat erakunderekin elkarlanean jardu da; besteak beste, ANELekin, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta finantza-erakundeekin.

2014. urtean zehar:

- Lau topaketa egin dira bigarren hezkuntzako institutuetako ikasleekin: "Lekaroz-Elizondo BHI" (Lekaroz, Baztan; "Sierra de Leyre BHI" (Ilunberri), "Sakana LHI" (Altsasu), eta "Toki Ona BHI" (Bera). Denetara 75 gaztek hartu zuten parte topaketa horietan.
- Arbizun (Sakana) ekintzailetzako mahai bat egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatu eta finantzatutako eta Mondragon Unibertsitateak koordinatutako "*Learning by doing*" izeneko programan (ekintzaileak prestatzeko) parte hartu zutenekin.
- Talde horrekin lankidetzan, hiru negozio-ideia berri landu dira.
- Horrez gain, 2013an laguntza jaso zuten 3 proiektuen jarraipena egin da.
- Bost tailer eta jardunaldi antolatu dira Elizondon (Baztan), Altsasun, Leitzan eta Zubirin (Esteribar). Denetara, 49 lagunek hartu zuten parte.

- Bederatzi proiekturen bideragarritasun-planei aholkua eta babesa eman zaie.
- "Finantzaketa-aukerak ekintzaileentzat eta enpresentzat Nafarroako Mendialdean" izeneko jardunaldia antolatu dugu. Denetara, 26 lagunek hartu dute parte.



43. irudia. "ERNE" proiektua. Burututako jardueraren banaketa geografikoa



10. grafikoa. "ERNE" proiektua. Jardunaldietan eta tailerretan izandako parte-hartzea. Emakumeen eta gizonen arteko konpratiboa.

20. taula. ERNE proiektua. Proiektuak iraun bitartean landutako ekintzen laburpen-koadroa

I. FASEA. "ETORKIZUNEKO IDEIAK" KONTZEPTUAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA				
Urtea	**Ekintza**	**Jarduera**	**Non**	**Partaide-kopurua**
2013	Topaketak gazte ekintzaileekin	Ekintzaileen KEDADA	Altsasu	80
			Lekaroz / Baztan BHI	14
		Ekintzailetzarantz sentsibilizatzeko tailerra	Altsasu BHI	60
2014	Topaketak gazte ekintzaileekin	"Etorkizuneko ideiak" tailerra	Lekaroz / Baztan BHI	14
			Irunberriko 'Sierra de Leyre' BHI	20
			Altsasuko LHI	22
			Berako 'Toki Ona' BHI	19

II. FASEA: EKINTZAILETZA: "IDEIATIK EKINTZARA"				
Urtea	**Ekintza**	**Jarduera**	**Non**	**Emaitzak**
2013	Negozio-ideiak identifikatu / aukeratu	Ekintzailetzari buruzko 1. mahaia	2 saio Donezteben	Identifikatutako 13 proiektu, aholkua jaso duten 6 proiektu
2014		Ekintzailetzari buruzko II. mahaia	Arbizu	

III. fasea. EKINTZAILETZARAKO TRESNAK				
Urtea	**Ekintza**	**Jarduera**	**Non**	**Partaide-kopurua**
2013	Ekintzaileak gaitu.	"CANVAS eredua" izeneko tailerra	Antsoain	14
	Finantzatzeko formula berriak	"Enpresentzako finantzaketa-aukerak" tailerra	Lesaka	17
			Agoitz	32
		Business Angels		Aholkua lau proiekturi
	Bideragarritasun-planak			5
2014	Ekintzaileak gaitu	"CANVAS eredua" izeneko tailerra	Elizondo (Baztan)	9
		Negozioa garatzeko	Zubiri	6

		tailerra	Leitza	6
		Merkataritzari eta marketinari buruzko tailer praktikoa	Elizondo (Baztan)	12
	Finantzatzeko formula berriak	Tailerra: "kooperatibaren inguruko esperientziak Nafarroako Mendialdean"	Altsasu	16
	Bideragarritasun-planak			9

44. irudia. Merkaturatzeari eta marketinari buruzko tailer praktikoa. Elizondo (Baztan)

45. irudia. ERNE proiektua. Ekintzailetzako mahaia Sakanan. Arbizu.

NAFARROAKO MENDIALDEAN EKINTZAILETZA BABESTEKO ZERBITZUA. "NAVARRA EMPRENDE" SAREA

Sarrera. "Navarra Emprende" sarea.

Aipatu dugunez, Cederna Garalur Elkartearen iritziz, Nafarroako Mendialdean ekintzailetzari eta enpresak finkatzeari laguntza ematea funtsezkoa da ekonomiaren eta gizartearen garapenerako, eta bertako biztanleriari eusten eta kanpokoak erakartzen laguntzen du. Horregatik, Cederna Garalur Elkarteak betidanik bideratu ditu baliabide aunitz babes-zerbitzuak ematen:

- Negozio bat sortzen eta martxan jartzen.
- ETEak eta mikroETEak mantentzeko ekintzailetza sortzen, jarduerak dibertsifikatzeko aholkularitza emanez, berrikuntzaren bitartez, lehiakortasuna hobetuz, enplegua suntsitzea saihestuz.

Zerbitzu horiek emateko, 2014an Cederna Garalur Elkarteak bat egin du Nafarroako "Emprende" programarekin.

"Emprende", Nafarroako enpresa-ekimenerako planean (2013-2015) jasotako ekintzetako bat da. Nafarroako Gobernuak finantzatzen du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez. Atari publiko-pribatua da, Nafarroako Foru Erkidegoko ekintzaileei eta autonomoei informazioa, dibulgazioa, jarduera onak eta laguntza zerbitzuak ematen dizkien ataria.

'Navarraemprende.com' atariak ekintzaileari laguntzeko nafar sarea hartzen du bere baitan. Azken hori Foru Erkidegoan enpresa-ekimenean diharduten hainbat erakundek eta entitatek osatzen dute; besteak beste, Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako iparraldean.

"Navarra Emprende" (Nafarroa ekintzailea) sarearen helburuak dira:

1. Enpresa-ekimenari buruzko informazio argia eta osatua ematea.
2. Nafarroako ekintzaileei beren enpresa martxan jartzen laguntzea.
3. Autonomoei beren eguneroko jardueran laguntzea.

46. irudia. www.navarraemprende.com atariaren irudia

"Navarra Emprende" sareak atari bat dauka Interneten: www.navarraemprende.com. Horretan, negozio bat martxan paratzeko beharrezkoa den informazioa (zergak, legeak) eta aholkuak topa daitezke, baita elkartutako erakundeekin harremanetan paratzeko informazioa ere.

"Navarra Emprende" sarea Nafarroako Mendialdean. Cederna Garalur Elkartearen baliabideak

"Navarra Emprende" sarearen ordezkaria Nafarroako iparrean Cederna Garalur Elkartea da. Gure elkarteak buru-belarri dihardu programa horretan, eta makina bat langile jarri du proiektua lantzen (denetara 9 langilek dihardute proiektuan), baita herritarrei arreta egiteko bulego-sarea ere; Nafarroako Mendialdean 16 guztira, elkartearen eremu geografiko zabala betetze aldera.



47. irudia. "Navarra Emprende" sarea. Ekintzaileari arreta egiteko Cederna Garalur Elkartearen bulegoen banaketa.

Eskualdeko garapen-agentziak	TEGE, Langile teknikariak	Arretarako guneak
Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi	Izaskun Abril	BAZTAN Baztango Balleko Etxea. Foruen plaza, z/g 31700 Elizondo URDAZUBI Urdazubiko Udaletxea San Salbatore karrika, 1 31711 Urdazubi ZUGARRAMURDI Lapiztegia Karrika z/g 31711 Zugarramurdi
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Arantza Arregi	DONEZTEBE Malerrekako zerbitzu-mankomunitatea Merkatariak karrika, 17 31752 Doneztebe LESAKA Bidasoko enpresa-zentroa Alkaiaga industrialdea, Alasta karrika, 2B 31770 Lesaka
Pirinioaurreko arroak	Carlos Garcia	AGOITZ Agoizko Udaletxea Berria karrika, 22 31430 Agoitz

		Ilunberri: Carlos Garcia Ilunberriko Udaletxea. Kale nagusia, 48 31440 Ilunberri
Esteribar – Erroibar - Aezkoa:	Edurne de Miguel	LUZAIDE Luzaideko Udaletxea. Elizaldea karrika, z/g. 31660 Luzaide ARIBE Aezkoa Ibarreko Batzarraren ibar-etxea. Santa Maria karrika 31671 Aribe LINTZOAIN (ERROIBAR) Erroibarko Udaletxea 31696 Lintzoain ZUBIRI Esteribarko Udaletxea Frantziarako errepidea 31630 Zubiri
Mendialdea-Ultzama	Nahikari Uriarte Raquel Aldaz	LEKUNBERRI Lekunberriko Udaletxea. Alde Zaharra 41, 1. solairua 31870 Lekunberri LEITZA Leitzako Udaletxea. Elbarren kalea, 1 31880 Leitza ULTZAMA Ultzamako Udaletxea. San Pedro kalea, 8 Larraintzar
Sakana	Susana Mendinueta	SAKANA Zerbitzu-zentroa. Utzubar industrialdea, 8. lursaila 31839. Arbizu
Zangoza	Gabriela Orduna	ZANGOZA Vallesantoro jauregia. Alfonso el Batallador karrika, 16 31400 Zangoza
Erronkari - Zaraitzu	Amaia Mauleon	ZARAITZU / ERRONKARI Pirinioetako zerbitzu-zentroa. Izize industrialdea 31451 Izize

21. taula. Nafarroako Mendialdean ekintzailetzari arreta egiteko guneak. "Navarra Emprende" sarea

Ekintzailetzari laguntzeko Cederna Garalur Elkartearen zerbitzua "Navarra Emprende" sarearen barnean. Ekintzak eta emaitzak 2014an

9. irudiak ekintzaileei eta enpresei laguntzeko Cederna Garalur Elkarteak darabilen metodologia laburbiltzen du. "Navarra Emprende" sarearekiko lankidetzaren barnean, Cederna Garalur Elkarteak honako jarduerak definitu ditu:

9. irudia. Ekintzaileei arreta egiteko prozedura.

2014. urtean zehar:

- 8 eskualde-diagnostiko egin ziren, AMIA motakoak (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak), enpresa-ekimenaren ikuspuntutik.
- 1.172 bisita jaso genituen.
- 210 ekintzaileri arreta egin genien: 95 emakumeak ziren, eta 115 gizonak.
- 90 lagunek alta eman zuten autonomotan; horietatik % 47 emakumeak ziren.
- 27 laguni aholkua eman genien beren enpresa-proiektua martxan jartzeko; 14 emakumeak ziren, eta 13 gizonak.
- Emekumezkoen ekintzailetzaren inguruko bi bilera egin ziren, eta horietan 46 lagunek hartu zuten parte. Halaber, bilera bat egin genuen "Arkupeak" erretiratuen elkartearekin.

- Enpresa-ekimenari eta ekintzaileei buruzko 26 berri eman genituen argitara "Navarra Emprende" sarearen atarian (www.navarraemprende.com).
- Nafarroako Mendialdeko enpresekin, enpresa-ekimenarekin eta ekintzaileekin lotura duten 69 berri eman dira argitara Cederna Garalur Elkartearen facebook kanalean (@cedernagaralur).
- Zortzi ikastaro teoriko/praktiko eman genituen Nafarroako Mendialdeko beste hainbeste herritan: "Kontabilitate- eta zerga-betebeharrak); 57 lagunek hartu zuten parte.



48. irudia. Irurtzunen enpresa-ekimenaren inguruko esperientzia bati buruzko berria www.navarraemprende.com atarian

Data	Non	Gizonak	Emakumeak	PARTAIDE KOPURUA
2014/11/03	Arbizu	1	5	6
2014/11/05	Zangoza	0	2	2
2014/11/10	Agoitz	5	4	4
2014/11/13	Zubiri (Esteribar)	2	7	7
2014/11/20	Izize (Galoze)	5	4	4
2014/11/25	Lekunberri	1	9	9
2014/12/12	Elizondo (Baztan)	3	3	3
2014/12/16	Lesaka	5	1	1

22. taula. Ikastaroa: "Ezagutu zure zerga- eta kontabilitate-betebeharrak" Parte-hartzea.



11. grafikoa. Prestakuntza-ikastaroetan izandako parte-hartzea. Gizonen eta emakumeen arteko alderaketa.



12. grafikoa. Enpresa-ekimenari arreta egiteko ekintzak, sexuaren arabera banandurik

49. irudia. Cederna Garalur Elkartearen facebook kanala (@cedernagaralur). Ekintzailetzari buruzko berri bat.

50. irudia. Ikastaroa Agoitzen: "Ezagutu zure zerga- eta kontabilitate-betebeharrak"

ENPRESA-EKIMENERAKO PRESTATZEN. PRESTAKUNTZA-PROGRAMA ENPRESA TXIKIENTZAT

Prestakuntza espezializatua da hirugarren ardatza ekintzailetzara eta enpresen arretara bideratutako zerbitzuen eskaintzan. Bi urte horietan, finkatze-bidean eta aktiboan zeuden enpresei, negozio-ideia bat zuten pertsonei nahiz enplegua aktiboki bilatzen ari zirenei bideratu zitzaien proiektua. Lehenengo multzokoei haien negozioak dibertsifikatzeko eta salmenta-bideak hobetuz emaitzak ere hobetzeko bide berriak eskaini zitzaizkien. Bigarren multzokoei, berriz, negozio-ideia bat zeukaten eta hori enpresa-proiektu bihurtu nahi zutenen izaera ekintzailea suspertu zitzaien, pertsona horien trebetasunak eta gaitasunak aztertuz.

Aurrekontua denetara, 52.000 € izan zen, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzaturik, 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programaren bitartez.

Enpresa txikiei bideratutako prestakuntza-programaren helburuak dira:

1. Toki-baliabideak aprobetxatzea bultzatzea, enpresa-jarduera dibertsifikatzeko eta enplegua sortzeko.
2. Enpresei prestakuntza espezializatua ematea, negozioaren barne-kudeaketaren bitartez lehiakortasuna nahiz salmentak hobetzeko.
3. Autoenplegua suspertzea, ekintzaileen trebetasunak eta gaitasunak identifikatuz eta horiek baliatuz.
4. Enpresa-ekimenerako esperientzia eta formula berriak aurkeztea.
5. Toki-erakundeei, taldeei, enpresei eta, oro har, herritar guztiei babesa ematea ezagutzak jaso zitzaten, eta haien baliabideak kudea zitzaten.

2014an zehar, 12 gairen inguruko 20 ikastaro antolatu dira 13 udalerritan. Horietan, 229 lagunek hartu zuten parte, eta horietatik 137 emakumeak ziren. Zehazki:

- 12 gairi buruzko 20 ikastaro programatu dira 19 udalerritan: 5 izaera sektorialekoak (lehen sektorera edo turismo-zerbitzuetara bideratuak); eta 7 enpresei edo enplegua aktiboki bilatzera bideratuak.
- Hasiera batean programatutakoetatik, 21 prestakuntza-ekintza burutu ziren.
- 311 prestakuntza-ekintza burutu ziren denetara.

- 271 lagunek eman zuten izena, eta horietatik 229 lagunek burutu dute prestakuntza; alegia, % 84,5ek.
- Azken horietatik, 137 (% 59,82) emakumeak ziren.

	Programatutako ikastaroak	Egindako ikastaroak	Orduak, guztira	Udalerriak
Zuzeneko salmentarako estrategiak	1	0	0	0
Nahasmendua nagusi den garaietan saltzea	1	1	6	1
Nola eman azkena salmenta bati	3	3	18	3
Lineako marketina: blogak, web-orriak eta gizarte-sareak	2	4	72	2
Aurrekonturik gabeko marketina	2	2	18	2
Nire mikro-enpresa kudeatzen	2	2	30	2
"Autoempléate", zeuretzat lan egin	2	2	26	2
Nola bihurtu nire zaletasuna mikronegozio	3	3	45	3
Nafarroaren historia. Turismo-baliabidea	1	1	18	1
Baratze ekologikoak	1	1	18	1
Motozerra erabiltzeko agiri profesionala	1	1	50	1
Aizkoraren erabilera zuhaitzak markatzeko	1	1	10	1
GUZTIRA	***20***	***21***	***311***	***19***

23. taula. Enpresentzako prestakuntza-programa, 2014. Programatutako ikastaroak, laburpena

	Izena emandakoak		Ikastaroa bukatu zutenak	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Nahasmendua nagusi den garaietan saltzea	4	20	3	17
Nola eman azkena salmenta bati	7	24	7	22
Lineako marketina: blogak, web-orriak eta gizarte-sareak	20	30	19	27
Aurrekonturik gabeko marketina	6	18	5	17
Nire mikro-enpresa kudeatzen	13	18	10	16
"Autoempléate", zeuretzat lan egin	8	11	8	11
Nola bihurtu nire zaletasuna mikronegozio	9	19	6	14
Nafarroaren historia. Turismo-baliabidea	6	11	5	8
Baratze ekologikoak	12	6	4	5
Motozerra erabiltzeko agiri profesionala	16	0	15	0
Aizkoraren erabilera zuhaitzak markatzeko	13	0	10	0
GUZTIRA	***114***	***157***	***92***	***137***

24. taula. Enpresentzako prestakuntza-programa. Ikastaroetan parte hartutakoak.

12. grafikoa. Enpresentzako prestakuntza-programa. Izena eman zutenen eta prestakuntza bukatu zutenen arteko alderaketa





13.a. grafikoa. Enpresentzako prestakuntza-programa. Prestakuntza-ikastaroetan izen eman zuten emakumeen eta gizonen arteko alderaketa.



13.b. grafikoa. Enpresentzako prestakuntza-programa. Prestakuntza zuten emakumeen eta gizonen arteko alderaketa.



50. irudia. Enpresentzako prestakuntza-programa. Ikastaroen banaketa geografikoa.

NAFARROAKO MENDIALDEA - LGP LANDA GARAPENERAKO PROGRAMAREN (LEADER-en 4. ARDATZA, 2007-2013) JARRAIPENA

2014an ez zen "Nafarroako Mendialdea" Landa Garapenerako (LGP 2007-2013) programaren diru-laguntzarako deialdirik izan; horrenbestez, aurreko deialdietan onartutako proiektuen gauzatze-mailaren jarraipena egiten lan egin genuen.

Bestalde, 2014. urtea Europako programen programazioaldi berriaren (2014-2020) hasiera izan zen. Programa horietako bat da "Nekazaritzako politika bateratua" (NPB); horren mendekoa da, azkenik, "Nafarroako Mendialdea" landa-garapenerako programa (LGP), "Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF)" programako LEADER-en 4. ardatzaren barnean. Aldi berean, 2014. urtea aurreko programaren bukaera izan zen; hortaz, proiektuen gauzatzeari buruzko zifrak falta baditugu ere, ixtear dagoen programaren, finantzatutako proiektuen eta emandako laguntzaren gutxi gorabeherako balantzea egin dezakegu.

Horrela, 2007-2014 aldian:

- 6 laguntza-deialdi ireki ziren landa-garapeneko proiektuak burutzeko.
- Deialdi horietara denetara 393 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 91 produktiboak ziren, eta 302 ez-produktiboak.
- Denetara, 250 proiektu onartu ziren; 68 produktiboak eta 182 ez-produktiboak.
- Horren arabera, emandako diru-laguntza, guztira, 5 milioi euro izan da batez beste; hau da, onartutako inbertsioaren % 35,17.

	Aurkeztutako proiektuak			Onartutako proiektuak		
deialdia	**Produktiboak**	**Ez-produktiboak**	***GUZTIRA***	**Produktiboak**	**Ez-produktiboak**	***GUZTIRA***
2009 (iraila)	18	97	***115***	13	81	***94***
2010 (abuztua)	14	61	***75***	13	30	***43***
2012 (maiatza)	28	68	***96***	17	18	***35***
2013 (martxoa-maiatza)	28	0	***28***	23	0	***23***
2013 (martxoa-maiatza)	0	63	***63***	0	46	***46***
2013 (azaroa-abendua)	3	13	***16***	2	7	***9***
GUZTIRA	***91***	***302***	***393***	***68***	***182***	***250***

24. taula. Nafarroako Mendialdea - LGP 2007-2013 programa. 2007-2014 epealdia.

Aurkeztutako eta onartutako proiektuen laburpena

	Onartutako inbertsioa guztira (€)	Emandako laguntza (€)	Inbertsioaren gaineko diru-laguntzaren ehunekoa
Proiektu produktiboak	8.520.955,80	2.064.746,03	% 24,23
Proiektu ez-produktiboak	5.732.687,76	2.949.279,01	% 51,45

25. taula. Nafarroako Mendialdea - LGP 2007-2013 programa. 2007-2014 epealdia. Onartutako inbertsioekiko eman ziren laguntzen alderaketa, proiektuaren izaeraren arabera

Eskualdeko garapen-agentzia	Proiektu produktiboak	Proiektu ez-produktiboak	GUZTIRA
Baztan - Urdazubi -Zugarramurdi	9	10	19
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	8	17	25
Pirinioaurreko arroak	17	3	20
Esteribar-Erroibar-Aezkoa	15	20	35
Mendialdea-Leitzaran-Ultzama	11	15	26
Erronkari - Zaraitzu	4	10	14
Sakana	2	20	22
Zangoza	6	17	23
Beste batzuk	2	8	10
GUZTIRA	***40***	***90***	***130***

26. taula. Nafarroako Mendialdea - LGP 2007-2013 programa. 2007-2014 epealdia. Proiektuak eskualdeka

51. irudia.Gergetiaingo San Martin elizaren panoramikoa (iturria: www.turismoromanico.com)



14. grafikoa. Onartutako proiektu guztiak, eskualdeka. 2007-2014 epealdia



15. grafikoa. Konparatiboa. Onartutako proiektuak, produktiboak eta ez-produktiboak, eskualdeka. 2007-2014 epealdia



16. grafikoa. Onartutako proiektuen ehunekoa, "Nafarroako Mendialdea" LGP 2007-2013 programako ildo estrategikoaren arabera.

EMAITZA EKONOMIKOAK

CEDERNA GARALUR ELKARTEA. 2014. URTEA

BALANTZE LABURRA 2014. EKITALDEA IXTEAN

AKTIBOA		2013	2014
A) ACTIBO EZ KORRONTEA		515.982,12	487.248,41
I.	Ibilgetu ukiezina	0,00	0,00
II.	Ibilgetu materiala	491.783,79	463.050,08
III.	Inversiones Inmobiliarias		
IV.	Epe luzerako inbertsioak taldeko enpresetan eta	3.006,00	3.006,00
	Elkartuetan, epe luzera		
V.	Epe luzerako finantza-inbertsioak	21.192,33	21.192,33
A) AKTIBO KORRONTEA		6.809.206,00	8.087.185,30
III.	Merkataritza-hartzekodunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	6.794.087,71	8.081.372,08
*	Salmentengatiko eta zerbitzua emateagatiko bezeroak	91.705,73	222.980,29
*	Herri Administrazioak eta beste zordun batzuk	6.702.381,98	7.858.391,79
IV.	Epe motzerako inbertsioak taldeko enpresetan eta enpresa elkartu	3.600,00	1.822,05
VI.	Epe motzerako aldizkakotzeak	2.622,74	2.048,53
VII.	Esku-dirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	8.895,55	1.942,64
	GUZTIRA OROKORRA (B+D)	7.325.188,12	8.574.433,71

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2013	2014
A)ONDARE GARBIA		39.588,86	-218.280,38
A1) FUNTS PROPIOAK		-314.015,37	-370.852,21
III.	Erreserbak	-158.809,40	-199.241,32
V.	Aurreko ekitaldietako emaitzak	21.663,56	-155.205,97
VII.	Ekitaldiaren emaitza	-176.869,53	-16.404,92
A3) DIRU LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA JASOTAKO ONDAREAK		353.604,23	152.571,83
B)PASIBO EZ KORRONTEA		1.325.153,64	865.358,77
I.	Epe luzerako zuzkidurak	335.385,11	0,00
II.	Epe luzerako zorrak	780.040,88	653.513,04
	1.Kreditu-erakundeekiko zorrak	778.848,88	652.200,04
	5 Beste finantza-pasibo batzuk. Fidantzak	1.192,00	1.313,00
III.	Epe luzerako zorrak taldeko enpresekin eta enpresa elkartuekin	209.727,65	211.845,73
C) PASIBO KORRONTEA		5.960.445,62	7.927.355,32
III.	Epe motzerako zorrak	327.085,09	762.700,65
	1.Kreditu-erakundeekiko zorrak	327.085,09	762.700,65
	3.Epe motzerako zorrak	*0,00*	
V.	Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	5.633.360,53	7.164.654,67
	1. Hornitzaileak	50.954,54	76.394,80
	2. Bestelako hartzekodunak	5.582.405,99	7.088.259,87
	GUZTIZKO OROKORRA (A+B+C+D+E)	7.325.188,12	8.574.433,71

CEDERNA GARALUR ELKARTEA. 2014. URTEA			
2014. EKITALDIKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUA			
		2.013	2.014
4	**HORNIDURAK**	**-219.985,42**	**-199.301,01**
5	**USTIAPENAREN BESTELAKO SARRERAK**	**1.054.490,28**	**1.044.820,42**
	74.- Diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	597.920,15	638.841,23
	75.- Bestelako kudeaketa-sarrerak.	456.570,13	405.979,19
6	**LANGILEEN GASTUAK**	**-677.206,51**	**-603.981,74**
7	**USTIAPENAREN BESTELAKO GASTUAK**	**-210.964,36**	**-162.179,21**
8	**IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA**	**-36.283,08**	**-34.626,41**
10	**Zuzkidura-soberakinak**	**0,00**	**0,00**
11	**IBILGETUA NARRIATZEA ETA BESTERENTZEAGATIKO EMAITZA**	**-19.771,97**	**327,89**
	790 **Horniduren soberakina eta aplikazioa**	0,00	650,95
	690 **Narriadurak eta galerak**	-19.771,97	-323,06
	A) USTIAPENAREN EMAITZA	**-109.721,06**	**45.059,94**
12	**DIRU-SARRERA FINANTZARIOAK**	**2,16**	
13	**FINANTZA GASTUAK**	**-72.129,98**	**-61.464,86**
16	**FINANTZA TRESNEN NARRIADURA ETA BESTERENTZEAGATIKO EMAITZA**	**4.979,35**	**0,00**
	B) EMAITZA FINANTZARIOA	**-67.148,47**	**-61.464,86**
	C) ZERGA AURRETIKO EMAITZA	**-176.869,53**	**-16.404,92**
17	**MOZKINEN GAINEKO ZERGAK**	**0,00**	**0,00**
	D) EKITALDIAREN EMAITZA	**-176.869,53**	**-16.404,92**

2015ko DIRU SARREREN AURREKONTUA ETA 2014an GAUZATUTAKOA

	2014ko AURREKONTUA	2014an GAUZATUTAKOA	2015ko AURREKONTUA
DEIALDIAK / NGrekiko HITZARMENAK	**185.650,00**	**179.415,12**	**185.000,00**
KALITATEKO TURISMOA + ICTE	**30.000,00**	**23.765,12**	**30.000,00**
NEZ / TGE	**155.650,00**	**155.650,00**	**155.000,00**
ELKARTEKIDEEN KUOTAK ETA LAGUNTZAK	**469.932,82**	**402.633,54**	**501.675,86**
BABESLEAK	***20.000,00***	***0,00***	***26.066,49***
ELKARTEKIDEEN KUOTAK	**449.932,82**	**402.633,54**	**475.609,37**
JARDUERA ETA ZERBITZUENGATIKO DIRU SARRERAK	**0,00**	**3.996,60**	**0,00**
BESTE ZERBITZU BATZUK	**0,00**	**3.345,65**	**0,00**
BEHIN-BEHINEKOA. APLIKATUTAKO KAUDIMENGABEZIAK	**0,00**	**650,95**	**0,00**
EUROPAKO FUNTSAK	**652.913,17**	**459.426,11**	**327.733,06**
LGP PROIEKTUAK	**515.315,67**	**369.979,91**	**252.297,79**
LGP 2007-2014 - FUNTZIONAMENDU GASTUAK	**282.584,38**	**181.986,84**	**102.297,79**
LGP 2014-2020 - FUNTZIONAMENDU GASTUAK	**0,00**	**0,00**	**150.000,00**
LGP - LANKIDETZA BIDEAK	**66.550,00**	**20.885,84**	
LGP - HURBILEKO MERKATARITZA, LANKIDETZA	**10.447,42**	**55.248,37**	
LGP - LANIN-G	**26.466,92**	**24.319,77**	
LGP - PRESTAKUNTZA ETEak	**27.500,00**	**18.441,32**	
LGP - MERKAT-ARI	**19.190,99**	**7.154,77**	
LGP - NATURA BALIABIDEAK	**45.620,30**	**43.000,01**	
LGP - EKINTZAILETZA	**36.955,66**	**18.942,99**	
BESTE PROIEKTU BATZUK	**137.597,50**	**89.446,20**	**75.435,27**
EUROPE DIRECT	**22.500,00**	**18.500,00**	**21.000,00**
INTERREG ITERA-AA	**60.392,43**	**52.506,04**	**0,00**
INTERREG CYBERSUDOE-INNOV	**54.705,07**	**18.440,16**	**54.435,27**
SARR. GUZTIRA, LGPko "3." ONURADUN. GABE	**1.308.495,99**	**1.045.471,37**	**1.014.408,92**
LGP FUNTSAK, 3. ONURADUNAK	**683.655,04**	**681.844,11**	**1.167.890,69**
LEHIAKORTASUNA	35.111,50	58.879,19	133.558,78
INGURUMENA ETA LANDA INGURUNEA	162.892,63	139.956,46	85.823,98
BIZI KALITATEA ETA DIBERTSIFIKAZIOA	485.650,91	483.008,46	948.507,93
SARR. GUZTIRA, LGPko "3." ONURADUNEKIN	**1.992.151,03**	**1.727.315,48**	**2.182.299,61**

Kontu-ikuskaritzaren aurretikoak

CEDERNA GARALUR ELKARTEA GASTUAK		2014ko AURREKONTUA	2014an GAUZATUTAKOA	2015ko AURREKONTUA
I. LANGILEEN GASTUAK		**670.049,82**	**603.981,74**	**634.083,81**
I.1 Soldatak eta lansariak eta gizarte-segurantza		**670.049,82**	**603.981,74**	**634.083,81**
II. GASTOS REPRESENTACION Y DESPLAZAMIENTO		**92.317,04**	**61.584,94**	**80.113,68**
II.1 Ordezkaritza eta publizitatea		**18.000,00**	**16.983,00**	**18.000,00**
II.2 Joan-etorriak eta ordezkaritzak		**74.317,04**	**44.601,94**	**62.113,68**
	TEGE (8 agentzia - 2014, eta 5 agentzia - 2013)	28.658,97	14.834,89	25.847,97
	LGP - MERKAT-ARI	778,19	488,32	
	LGP 2007-2014 - Funtzionamendu-gastuak	6.000,00	5.629,60	2.000,00
	LGP 2014-2020 - Funtzionamendu-gastuak			4.000,00
	LGP - Lankidetza, bideak	816,00	285,20	
	LGP - Lankidetza, hurbileko merkataritza	2.160,00	1.380,66	
	LGP - Basolan	1.000,00	40,32	
	LGP - Erne	937,80	315,52	
	LGP - Enpresentzako prestakuntza II	1.050,00	216,32	
	PDR- LANIN-G	805,92	608,93	
	EUROPE DIRECT	0,00	347,65	1.700,00
	INTERREG-ITERA-AA	5.500,19	2.088,14	
	INTERREG-CYBERSUDOE'INNOV	8.755,20	1.143,94	7.065,71
	NG-SICTED	1.354,77	2.871,63	5.000,00
	GERENTZIA	10.500,00	10.780,66	10.500,00
	LEHENDAKARITZA	3.500,00	2.873,56	3.500,00
	EGITURAKO BIDALA-GASTUAK	2.500,00	696,60	2.500,00
III. Lokalen gastuak		**42.679,03**	**35.634,30**	**42.131,21**
III.1 Eraikina konpontzea, mantentzea eta zaintzea		180,53	61,75	180,53
III.2 Elektrizitatea eta ura		8.419,38	6.717,61	7.406,38
III.3 Antsoaingo egoitzako telefonoak, beste batzuk		12.750,00	12.157,66	12.800,00
III.4 Beste batzuk (aseguruak, garbitasuna, zergak, eta abar)		11.256,00	12.019,22	12.139,60
III.5 Agentzien beste gastu batzuk		10.073,12	4.678,06	9.604,70
IV. Beste gastu arrunt batzuk		**168.358,32**	**168.455,55**	**181.309,79**
IV.1 Materiala. Amortizazioa		41.000,00	34.626,41	38.000,00
IV.2 programa informatikoak eta zerbitzu telematikoak. Telecom laguntza		8.400,00	15.741,38	17.119,67
IV.3 Harpidetzak, liburuak eta dokumentuak, fotokopiak		1.600,00	1015,46	1000
IV.4 Bulego-materiala		8.200,01	4.348,06	6.000,00
IV.5 Posta, mezularitza		1.560,00	561,10	1.560,00
IV.6 Finantza-gastuak		66.927,13	61.464,86	65.028,25
IV.7 Itzulpenak - Beste zerbitzu batzuk		7.949,38	5.807,85	12.050,89
IV.8 Profesional independenteen laguntza		12.000,00	12.000,00	12.000,00
IV.9 Profesionalak ez diren beste batzuk		20.721,80	32.890,43	28.550,98
V. BESTELAKO GASTUAK ETA KONTRATAZIOAK		**299.100,04**	**192.222,76**	**76.770,43**
	INTERREG ITERA-AA	33.429,01	34.235,71	
	TURISMOA-SICTED	2.519,29	747,18	
	LGP - FUNTZIONAMENDUA 2007-2014	83.503,07	30.520,14	27.700,00
	LGP - FUNTZIONAMENDUA 2014-2020	0,00	0,00	14.616,80
	LGP - MERKAT-ARI	13.068,00	3.025,00	
	LGP - LANIN-G	18.074,98	16.759,01	
	LGP – BIDEAK, LANKIDETZA	3.388,00	6.468,84	
	LGP - HURBILEKO MERKATARITZA, LANKIDETZA	34.485,00	27.584,53	
	NEZ - EKINTZAILETZA	0,00	296,89	
	EUROPE DIRECT	0,00	1.405,87	0,00
	LGP - NATURA BALIABIDEAK - BASOLAN	33.858,50	34.561,40	
	LGP - EKINTZAILETZA	25.289,00	14.740,68	
	LGP - ENPRESENTZAKO PRESTAKUNTZA	22.435,20	19.449,61	
	INTERREG CYBERSUDOE-INNOV	29.049,99	2.427,90	34.453,63
GASTUAK GUZTIRA, LGPko ONURADUNEN AURRETIK		**1.272.504,25**	**1.061.879,29**	**1.014.408,92**
SARRERAK GUZTIRA, LGPko ONURADUNEN AURRETIK		**1.308.495,99**	**1.045.471,37**	**1.014.408,92**
ALDEA, LGPko ONURADUNEN AURRETIK		**35.991,74**	**-16.407,92**	**0,00**
VI. LGPko ONURADUN PRIBATUEN GASTUAK GUZTIRA		**683.655,04**	**738.870,46**	**1.167.890,69**
	LEHIAKORTASUNA	35.111,50	132.504,38	133.558,78
	INGURUMENA ETA LANDA INGURUNEA	162.892,63	120.000,00	85.823,98
	BIZI KALITATEA ETA DIBERTSIFIKAZIOA	485.650,91	486.366,08	948.507,93
GASTUAK GUZTIRA		**1.956.159,29**	**1.800.749,75**	**2.182.299,61**
DIRU SARRERAK GUZTIRA		**1.992.151,03**	**1.784.341,83**	**2.182.299,61**
ALDEA		**35.991,74**	**-16.407,92**	**0,00**

cederna garalur